



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

50 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Porcelanas del Norte, SAL, Manufacturas Navarra, SAL eta Comercial Europea de Porcelanas, SAL enpresei eman zaizkien laguntza publikoei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

**Porcelanas del Norte, SAL, Manufacturas Navarra, SAL eta Comercial Europea de Porcelanas, SAL enpresei eman zaizkien laguntza publiko-
ei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 4an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Porcelanas del Norte, SAL, Manufacturas Navarra, SAL eta Comercial Europea de Porcelanas, SAL enpresei eman zaizkien laguntza publikoei buruzko fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruña, 1997ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Porcelanas del Norte, SAL, Manufacturas Navarra, SAL eta Comercial Europea de Porcelanas, SAL enpresei eman zaizkien laguntza publikoei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Dirulaguntzen eta eman diren gainerako laguntza publikoen zerrenda (3.or.).
- III. Helburua (5. or.).
- IV. Norainokoa eta mugak (6. or.).
 - IV.1. Norainokoa (6. or.).
 - IV.2. Mugak (6. or.).
- V. Ondorioak (7. or.).

Gehigarriak.

- 1. Enpresa onuradunen egoeraren azterketa laburra (9. or.).
- 2. Ponsal-Manufacturas Navarra, SAL. enpresari eman zaizkien dirulaguntzak eta gainerako laguntzak (14. or.).
 - 2.1. Dirulaguntzak eta gainerako laguntzak (14. or.).

2.2. Ordainketa etenduraren akordioa (16. or.).

2.3. Iruñeko antolamenduari buruzko plan orokorraren unean uneko aldarazpena eta lurren salmenta (19. or.).

3. Comepor enpresari eman zaizkien dirulaguntzak eta gainerako laguntzak (23. or.).

3.1. Laguntzak krisian dauden enpresei (23. or.).

3.2. Nabeen erosketa (27. or.).

3.3. Beste laguntza batzuk (29. or.).

3.4. Europako Batzordeko Elkarlehiarako Zuzendaritza Nagusiaren jarduketak (30. or.).

Eranskinak.

- 1. Gertakizun adierazgarrienen zerrenda kronologikoa (32. or.).
- 2. Iruñeko Udalak aurkeztu dituen alegazioak (34. or.).
- 3. Kontuen Ganbararen erantzuna Iruñeko Udalak aurkeztu dituen alegazioei (35. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuaren Bozeramaileen Batzarrak, 1996ko azaroaren 4ko bileran, eta "Nafarroako Parlamentuko Sozialistak" taldeak eskatuta, fiskalizazio txostena egiteko eskatu zion Kontuen Ganbarari Porcelanas del Norte, SAL (Ponsal), Manufacturas Navarra, SAL eta Comercial Europea de Porcelanas, SAL (Comepro) enpresei eman zaizkien laguntza publikoei buruz; txosten horren gutxieneko edukiak hauek ziren:

- *Laguntza publikoen barruan hala dirulaguntzak nola hirigintzako arloko eskuhartzeak sartu ziren.*

- *Laguntza zehatzen destinoa.*

• *Emakidan ezarri diren baldintzak betetzea, Bideragarritasun Planetan ezarri diren helburuen azterketa zehatza eginez.*

• *Hirigintzako jarduketak aipatzea.*

• *Eman diren laguntza publiko guztien eragin-kortasuna.*

1997ko urtarrilean Kontuen Ganbarako Lehen-dakariak lanean garatu beharreko alderdiak aurreratu zizkion Bozeramaileen Batzarrari, beharrezkoa balitz, bidezkotzat jotzen zituen iruzkinak eta oharrak egitearen ondoretarako. Halaber, idazki horretan eman diren laguntza horien lehenbiziko hurrenkera koantitatiboa erantsi zen. Otsailaren 3ko bileran, Bozeramaileen Batzarrak aurrerapen horren eduki eta mailarekin erabat ados zegoela adierazi zuen eta, halaber, eskakizuna egin zuen hirigintzako aldarazpenaren berrikuspenez ez mugatzeko kontabilitateko tratamendu hutsera.

Gogorarazi behar da Kontuen Ganbara arau-petu duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 2.2. artikuluan ezarri denarekin bat, instituzio horri dagokiola arlo pribatuaren onurarako dirulaguntzen eta sektore publikoak ematen dituen gainerako laguntzen fiskalizazioa.

Arestian aipatu den eskabide horren ondorioz, eta aurreko legezko manua kontuan hartuta, Kontuen Ganbarak lan hori 1997ko Jarduketarako Egitasmoaren barruan sartu zuen.

Txostenaren ulermena erraztearen ondoretarako eta sarrera bezala, nahitaezkoa da Parlamentuko eskakizunean azaltzen diren enpresaren arloko izendapena argitzea.

Horrela, bada, jatorriz "Porcelanas del Norte" zen enpresa, hasieran sozietate anonimoa zen eta gero lan-sozietate anonimoa. Enpresa horrek izena aldatu zuen 1995eko otsailean eta "Manufacturas Navarras, SAL" bihurtu zen; aldi berean, industri proiektuak "Comercial Europea de Porcelanas" enpresari transferitu zitzaizkion, azken hori ere sozietate anonimoaren eran eratu arren gero lan-sozietate anonimo egin zena, industri eta merkataritzako jarduera osoa irentsiz alegia.

1996ko maiatzean eten egin zen Manufacturas de Navarra enpresaren industri jarduera eta 1996ko abenduan hitzartutako ordainketa etendura adierazi zen.

II. PONSAL-MANUFACTURAS DE NAVARRA, ETA COMEPOR ENPRESEI EMAN ZAIZKIEN DIRULAGUNTZA ETA GAINERAKO LAGUNTZEN ZERRENDA.

Atal honetan, laburbilduz eta era eskematikoan, aztertu diren enpresa horiei eman zaizkien laguntza publikoen multzoa bildu da, zertarako eta Txostenaren emaitzak testuinguru egokian kokatzeko. 2 eta 3. zenbakiko eranskinetan laguntza horien azterketa zehatzagoa eta xehekatua egin da.

II.1. PONSAL-MANUFACTURAS DE NAVARRA, SAL

Ponsal-Manufacturas de Navarra, SAL enpresak jaso dituen dirulaguntzen eta laguntzen laburpena hau da:

a) Dirulaguntzak.

Emakidaren urtea	Kontzeptua	Abonamenduko urtea	Zenbatekoa
1979	Industri Sustapenerako Egitaraua (1)	1980 1987/88	6.000.000 24.000.000
1980/81	Ikerketarako Laguntzak	1980/81	5.500.000
1980/81	Abaguneko Ekintzen Industri Plana (PIAC-AEIP)	1980/81	7.413.764
1987	Krisi Egoeran dauden Enpresen Saneamendu eta Lehengoratze Plana	1987	51.000.000
1987	Inbertsio eta Enpleguaren Laguntza Finantzarioen Plana-Laguntza Zuzenak	1987	33.286.721
1987	Inbertsio eta Enpleguaren Laguntza Finantzarioen Plana-Laguntza Zuzenak	1988	85.459.600
1986/92	Laguntza teknikoa eta azterlanak	1986/ 1992	6.602.392

(1) 1979an eman zitzaion laguntza 30 milioi pezetakoa izan zen; lehenbiziko urtekoa (6.000.000 pezeta) 1980an ordaindu zen eta gainerakoa 1987-88an.

Laburtuz, 1979 eta 1992aren artean Ponsal-ek 219 milioi jaso ditu dirulaguntzen kontzeptuan.

b) Geroratzeak eta zatiketak

Urtea	Geroratuaren zenbatekoa
1979	30.219.477 pezetak
1987	571.703.006 pezetak

Ponsal enpresak, beraz, zerga zorren bi geroratze eta zatikatze eskuratu zituen eta horien munta 602 milioi pezetakoa izan zen; funtsean diru hori zor konkurtsalean sartu zen.

c) Beste jarduketa batzuk

c.1. Ordainketen etendura

Ordainketen etendurarako prozeduran Manufacturas enpresak guztira 3.165 milioi pezetako kenketa eskuratu zuen entitate publikoetatik –Nafarroako Gobernu eta Gizarte Segurantzaz–, hau da, erakundeen zorraren munta osoaren ehuneko 72; kenketa hori honela taxutu zen:

	Gizarte Segurantza	Foru Ogasuna
Konkurtsu-zorra	2.136.445.881	2.219.897.319
Egin den kenketa (barkatu den zorra)	1.550.463.070	1.605.897.319
Kitapenaren portzentaia	%72,6	%72,3
Ordaindu behar den zorra	585.982.811	614.000.000

Ordaintzeke zegoen gainerako zorra, gutxi gora-behera 1.200 milioi, oso-osoan Comepor enpresak onetsi zuen.

Zor horretatik, Gizarte Segurantzarekikoak ziren 200 milioiak Nafinco enpresa publikoak abalatu zituen, onuradunarentzako inolako kosturik gabe, eta 1997ko urtarrileko zorra eta abala erabat kitutu zen.

Gainerako 1.000 milioiak ondoko geroratze hauen bidez kitatu ziren:

- Tramite fasean dago Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin sinatu den hitzarmen berezian aurreikusi den 386 milioiko aparteko geroratzea. Dena dela, ezaugarri orokorrak zehaztu dira, ordainketa 5 urteko epean egitea ezarrita baitago, eta baita biko ezaldia jartzea ere; korrituen tasa diruaren legezko korrituaren baliokidea izanen da.

- Nafarroako Gobernuarekiko zorraren geroratzeari dagokionean, 614 milioiak korriturik gabe ordainduko dira, 2004ko ekitaldian hasi eta 76,75 milioiko 8 urtekotan, alegia.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak ordainketen geroratzea onetsi eta gero hartu den zorra geroratzea baimendu du –Comepor enpresak irentsiko duen zorra–; munta 30,7 milioikoa da. Geroratze hori, korriturik gabe, 2004ko ekitaldian hasi eta 3,8 milioiko 8 urtekotan ordainduko da.

c.2. Hirigintzako aldarazpena.

Iruñeko Hirigintzako Plangintzaren Plan Orokorren unean uneko aldarazpenaren ondorioz nabarmen hazi da Mendabaldean Ponsal enpresak atzematen dituen lurren hirigintzako balioa.

Horrela, bada, eragiketa honek sortaraziko duen gainbalioaren munta 700 milioi pezeta ingurukoa izanen dela esaten ahal da, hau da, horren katastroko balioaren –500 milioi, hots, gutxi gora-behera aldarazpena egin aurretik enpresa lokabe batek egin zuen tasazioaren balioa ia bera– eta lur horien desjabetzapenak sortu dituen ondorioen arteko aldea –1.200 milioi–.

II.2. COMEPOR

Comercial Europea de Porcelana, SAL enpresak eskuratu dituen dirulaguntza eta beste laguntza batzuen laburpena ondoko koadro honetan azaldu dugu:

Dirulaguntzak:	Korrituengatik, 1995ean	31.533.240
	Korrituengatik, 1996an	44.813.467
	Nabeen salmenta	140.990.700
	Inbertsioari	570.000.000
	Enpleguari (gehienez)	100.000.000
	Beste batzuk	4.706.600
	Guztira	892.044.007
Aurrerakinak-ordaink. geroratuak-maileguak	Aurrerakin ordaingarria, korriturik gabe	200.000.000
	Nabeen salmenta (%5eko korritua, 7 urtera eta 2ko ezaldia)	563.962.800
	Nafincoren mailegua (Mibor, 8 urte)	750.000.000
	Guztira	1.513.962.800
Abalak	Nafarroako Gobernua	1.200.000.000
	Sodena (Kitatua)	1.000.000.000
	Eskuratutakoa, guztira	2.200.000.000
	Guztira, bizia	1.200.000.000

Hau da, Comepor enpresak, 1994tik egunera, ondoko hauek jaso ditu:

- 892 milioiko dirulaguntzak.
- 2.200 milioiko abalak; horietatik txosten hau idatzi den egunean 1.200 milioiko abalak daude indarrean.

• Ordainketa geroratuak eta aurrerakinak– maileguak: 1514. milioi.

Laburbilduz, 1979tik egunera arte Ponsal-Manufacturas Navarra eta Comepor enpresek ondoko dirulaguntzak eta beste laguntza eta onurak jaso dituzte (milioitan):

Enpresa	Dirulaguntzak	Ordainketa geroratuak	Hirigintzako gainbalioa	Eman diren abalak	Kitapen etenak
Ponsal	219	1.633	700	-	3.156
Comepor	892	1.514	-	2.200	-
Guztira	1.111	3.147	700	2.200	3.156

* Zerga gerorapenak eta aurrerakinak eta maileguak barne.

III. HELBURUA

Kontuen Ganbara araupetu duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean ezarri denarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrek eskaturik eta "Nafarroako Parlamentuko Sozialistak" taldeak egin duen eskabidea bilduz, bere 1997ko egitasmoan Porcelanas del Norte, SAL (Ponsal), Manufacturas Navarra, SAL eta Comercial Europea de Porcelanas, SAL enpresei eman zaizkien laguntzen fiskalizazioa landu du.

Burutu den lanak, beti ere egin zen eskabidea kontuan hartuta, ondoko **helburu** hauek egiaztatzen nahi ditu:

a) Arestian aipatu diren enpresa horiek Administrazio Publikoetatik jaso dituzten laguntzen munta zehaztea.

b) Laguntza horien emakidetan ezarri diren beharkizunak zein mailatan bete diren egiaztatzea.

c) Iruñeko Hirigintzako Plangintzaren Plan Orokorren aldarazpenean hirigintzako arautegia bete dela frogatzea, eta baita plan horren egokitasuna ere.

d) Eman diren laguntza horien eraginkortasuna industri jardueraren jarraikortasunaren arabera aztertzea.

IV. NORAINOKOA ETA MUGAK

IV.1. NORAINOKOA

Eskabidea kontuan hartuta, lan honek norabide hirukoitza izan du:

a) Arestian aipatu diren enpresa horiek jaso dituzten laguntza multzoak zehaztea.

b) Emakidako baldintzak nola bete diren azterzea, baita botere publikoek egin duten kontrola eta jarraipena azterzea ere.

c) Jaso diren laguntza horien eraginkortasuna ebaluatzea eta dirulaguntza horiek jaso dituzten industri jarduera horien etorkizunerako perspektibak.

Gure jarduketa hasteko datatzat 1979ko ekitaldia hartu da, urte horretan Ponsal enpresa lan-sozietate anonimo bihurtu zelako eta laguntza publiko garrantzitsuak jasotzen hasi zelako.

Metodologiari dagokionean, Ganbara honek beti erabiltzen dituen prozedurak aplikatu dira, hots, Auditoretzen Gidan bildu eta Estatu Espainiarreko Organo Publikoen Kanpo Kontrolerako Koordinazioaren Batzordeak onetsi dituen Sektore Publikoaren Auditoretzari buruzko Oinarri eta Arauetan garatu direnak.

Zehatzago, ondoko erakunde hauen agiriak eta informazioa eskatu eta aztertu da:

- Nafarroako Gobernua: Industria, Lurraldearen Antolamendua eta Ekonomia eta Ogasuna Sailena.

- Toki izakiak: Iruñeko eta Galarko Zendeako Udalena.

- Enpresa publikoak: Sodena eta Nafinco.

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.

- Laguntzak jaso dituzten enpresa onuradunak.

Onuradunek bete behar dituzten beharkizunak betetzearen azterketari dagokionean Ganbara honek aurreko beste txosten batzuetan egin diren azterketak jarraitu ditu, batez ere "Industri Jardueraren Sustapena 1994-1997" egitarauaren fiskalizazioari dagokiona (1997ko martxoaren 20ko NPAO, 19. zenbakikoa).

Gogorarazi behar da Europako Batzordeak espediente hasi duela 1997ko maiatzean Comepor enpresari eman zaizkion laguntzak lehiaketa askearen aurkakoak ote diren aztertzeko. Espediente hori, gaur, tramitazio fasean dago.

Txostenak bost atal ditu, non hala esparru orokorra nola egin den lanarekin eskuratu diren hel-

buruak eta ondorioak azaltzen baitira. Atal horiek osatzeko 3 eranskin daude, horietan zehatzago azaltzen direlarik Ponsal-Manufacturas Navarra eta Comepor enpresen egoera ekonomikoa eta jaso dituzten laguntzen datuak.

IV.2. MUGAK

Egin den lanean izan ditugun muga jatorriak ondoko hauek izan dira:

a) Nafarroako Gobernuak dokumentazioa artxibatze eta erregistratzeko erabilitako sistema, batez ere 1978-1985 aldikoa, ez baitu bermatzen aldi horretan eman ziren laguntza guztiak identifikatu direnik.

b) Gizarte Segurantzari dagokionean, gure jarduketa enpresak dagozkien betebeharrak betetzen dituztela adierazten duen informazioa eskatzea baino ez da izan.

c) Fiskalizatu den aldi horretan dirulaguntzak eta gainerako laguntza publikoak jaso dituzten onuradunek bete beharreko gutxieneko baldintzak araupetu dituen arau orokorrik ez egoteak araudi asko izatea ekarri du eta horrek bi eragin ditu: ezin direla beti jasotzaileek bete behar dituzten beharkizunak eta dokumentuak zurrin aztertu eta zaila dela berrikusketak egitea.

d) Ekonomiaren egungo egoera aldakorrak baldintzatu egiten du etorkizunari begi egin behar diren analisi eta aurreikuspenen eraginkortasuna, portzelanaren industri alor hau bitxia delako eta Europako araudiak eraginak dituelako.

e) Ezinezkoa izan da Mendebaldeko lurretan egin den hirigintzako aldarazpenak Iruñeko Udalarentzat ekarri dituen eragin ekonomikoak zehaztea, nahiz eta informazio hori udal zerbitzuei eskatu.

f) Ezinezkoa izan da Comepor enpresaren 1996ko datu ekonomiko-finantzarioak azterzea edo erkatzea, Ganbara honek ez duelako bidezko Auditoretzaren Txostenik eskuratu, nahiz eta enpresa horri berriaz eskatu.

Zelai-lana 1997ko otsailetik maiatzera egin du, nork-eta Auditoretzako bi teknikaririk eta auditore batek eratu duen taldeak; halaber, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dute.

Entitate publikoetako langileen laguntza eskertu nahi dugu –Nafarroako Gobernua, Toki Entitateak, enpresa publikoak eta Gizarte Segurantzareta baita Ponsal-Manufacturas Navarra eta Comepor enpresarako langileena, lan hau gertutzeko eman diguten laguntzagatik.

V. ONDORIOAK

Parlamentuaren eskaintza eta egin den lanaren mugak kontuan hartuta, jarraian lan honetan eskuratu diren ondorio nagusienak azaltzen dira.

1) Ponsal enpresak, hirurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera enpresaren iraupena bera arriskuan jartzen zuen finantza egoera larria zuen.

Inoren baliabideen finantza zamak ia erabat irensten zituen bitarteko propioak eta, horregatik, enpresa kapitalgabetu egin zen eta apurka-apurka teknifizitatea ere galdu zuen; irteera bakarria Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzarekin zituen betebeharrak ez ordaintzea izan zen.

Enpresa aurrera eramateko eta egoera lehen-goratzeko ahaleginak eta bi egin arren, lan-sozietate anonimo bihurtu arren, erakundeekiko zorra geroratu arren, erakunde eta gizartearen laguntza izan arren, 1993an enpresa behin betiko krisi ekonomiko-finantzarioan murgilduta zegoen eta enpresa lokabe batek egin zuen Auditoretzaren Txostenean argi adierazi zen egoeraren irtenbidea, merkataritzako legerian ezarrita dauden balizkoekin bat, sozietatearen desegitea zela.

Adierazi den guztiagatik, 1996ko irailean Ponsal enpresak –aurrez sozietatearen izena aldatu eta Manufacturas Navarra, SAL izena hartu zue-
nak–, hala erakundeekin –Nafarroako Gobernu
a eta Gizarte Segurantzaz– nola langileekin berariaz-
ko akordioetara heldu eta legezko ordainketen
etendura eta behin-betiko kaudimengabezia egoe-
ra adierazi zuen.

2) Aurreko prozesuaren garapenarekin batera, aldi berean, 1994an ekitaldi horretan onetsi zen Lehengoratzeko eta Saneamendu Planean aurreiku-
sitako enpresa-proiektu berria jarri zen abian;
horren gidalerro nagusiak ondoko hauek izan
ziren:

- Lan-sozietate anonimo berria eratzea, zerta-
rako-eta Ponsalen industria eta merkataritzako
proiektuari eusteko; horren izena Comercial Euro-
pea de Porcelanas zen.

- Fabrika berria eraikitzea.
- Ponsalek atzematen zituen lurren salmenta.
- Erakundearen tratamendu pasiboa.

Dena den, enpresa proiektu berri horren bide-
ragarritasuna bi faktoreri hertsiki lotuta eta horien
pentzutan zegoen:

- Laguntza publikoekiko erabateko menpekota-
suna. horiek gabe proiektua erabat zelako bidera-
ezina; laguntza horiek hala laguntza zuzenetan

nola zorren geroratzeko eta zatikatzeetan islatu
behar ziren.

- Ekoizkortasun eta salmenten aurreikuspen
optimistak betetzea, hau da, hasierako Lehengo-
ratze Planaren eten gabeko aldarazpen eta berri-
kuspenetan islatu zena.

3) Dirulaguntza publikoa eta gainerako lagun-
tza eta jarduketaren zenbatekoketa.

Ponsal-Manufacturas de Navarra.

1979tik aurrera Ponsal-Manufacturas de Nava-
rra enpresak ondoko laguntza-jarduketa hauek
jaso ditu (muntak milioietan):

Jarduketa	Zenbatekoa
Dirulaguntzak	219
1994a aurreko geroratzek *	602
Gizarte Segurantzako kitapenak	1.550
Foru Ogasuneko kitapenak	1.606
Nafarroako Gobernuaren ordainketen etenduraren gerorapena	614
Gizarte Segurantzaren ordainketen etenduraren gerorapena	386
Nafincoren abala	200
Etendura osteko gerorapena	31
Hirigintzako gainbalioak **	700

* Zenbateko horiek, gehien bat, ordainketen etendura aurreko azken
zorreen daude sartuta.

** Kontuen Ganbarak egin dituen zenbatespenak

Comepor.

1994tik aurrera Comepor enpresak ondoko
laguntza hauek jaso ditu (milioietan):

Jarduketa	Zenbatekoa
Dirulaguntzak	892
Aurrerakinak-maileguak	1.514
Abalak	2.200*

* Egun indarrean 1.200 milioi daude.

Halaber, adierazi behar litzateke fondo gal-
dura eman diren laguntzak gora-behera, gainera-
ko jarduketak enpresarentzat baldintzarik onene-
tan eman direla, hala nola, ezaldi luzeak, korritu
tasa murriztuak edo deusezak, itzulketak eta
ordaintzeke zeudenak itzultzeko epeak luzatzea...

4) Administrazioako agiriak

Oro har, Nafarroako Gobernuaren jarduketa
hauen guztien euskarriak nahikoak dira eta era-
kundeak berak dirulaguntzen inbertsio material
euskarria benetakotu du. Dena dela, ondoko
hauek azpimarratu behar dira:

- Hartu ziren erabaketan eragin handia izan zuen gizartearen presioak, baina erabaki horiek ez dute beti erabateko azalpen tekniko egokirik.

- Gure aburuz gertatzen ahal da Comepor enpresarekin egin diren jarduketak ez egotea administrazioarentzat era egokian bidezkotuta, nabe eta instalazioen hipotekarekin nabeen ordainketa geroratu bera –564 milioi–, egun 1.200 milioioak diren abal batzuk eta 200 milioiko aurrerakin bat bermatu zelako. Nafincoren kasuan, mailegua 750 milioioa, enpresako akzioekin dago bermaturik.

- Enpresa publikoen –Sodenak, 1.000 milioi eta Nafincok 200 milioi– abalen emakidarekin –egun etenik daudenak– Nafarroako Gobernu bera ordeztu nahi da, nahiz eta benetan ez-betetzeko kasuan erantzungo lukeena Gobernu bera izan.

5) Iruñeko Antolamenduari buruzko Plan Orokorren unean uneko aldarazpena.

Jarduketa honi dagokionean ondoko hauek azpimarratuko genituzke:

- Ponsal enpresak atzematen duen esparrua osatzeko zegoen bakarra zen Iruña hiriko arlo egoitzazko eta sendotuaren bilbaduran. Horregatik guztiagatik, instalazio horiek lekualdatzeak hala enpresa proiektuaren balizko jarraikotasuna nola hiriaren alde horren hirigintzako akabera bidezkotzen zuen.

- Lehengoratzeko Plan guztietan bitartekoak eskuratzeko iturrizat jotzen dira Ponsal enpresa egun dagoen lurren salmenta.

- Hasieran desjabetzapen honen emaitza fabrika berria finantzatzeko zen; dena dela, errealitatean horrek izan duen aplikazioa ordainketen etenduraren prozesuan erakunde zorrak ordaintzeko munta ezartzea izan da, salmentaren munta eta Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunaren aldeko zor ordaindu gabearen zenbatekoa bera baitziren –1.200 milioi–.

- Arestian aipatu denaren bezalako etekina eskuratzeko aurrez nahitaezkoa zen Iruñeko Antolamenduari buruzko Plan Orokorren unean uneko aldarazpena, zertarako-eta ustezko eskuratzailentzat erakargarriago bihurtzeko.

- Gora-behera batzuk izan ondoren aldarazpen hori 1996an onetsi zen eta eragiketa hori udalaren zerbitzu teknikoaren erabateko adostasunik gabe egin zen, nahiz eta horri buruzko Nafarroako Gobernuaren aldeko txostenak egon.

- Aldarazpenaren ondorioz lurzoruaren sailkapena aldatu zen –urbanizagarria zena hirioa

bihurtu zen– eta nabarmen gehitu ziren hala etxebizitzaren kopurua nola merkataritzarako azalera; hori argi ikusten ahal da ondoko koadro honetan:

Zehaztapenak	Aldarazpena baino lehenago	Aldarazpena egin ondoren
Erabilera	Egoitzazkoa	Egoitzazkoa eta merkataritzakoa
Azalera, guztira	20.643 m ²	20.643 m ²
Azalera eraikigarria	17.172 m ²	27.936 m ²
Etxebizitzaren kopurua	128	180
Etxebizitzaren dentsitatea	72,4 etx/bizlag.	87,2 etx/bizlag.
Merkataritza aldeak	2.100 m ²	8.563 m ²
Eskola aldea	13.338 m ²	10.425 m ²
Espazio libreak	8.250 m ²	3.765 m ²
Balorazioa	500 milioiak	1.200 milioiak

- Espedientean azaltzen diren zenbatespenekin bat, eragiketan sor zitezkeen gainbalioak 700 milioi pezetatan neurtu ziren.

- Ez da zehaztu aurreko hirigintzako aldarazpen horrek Iruñeko Udalaren ondarearen gehikuntza edo murrizketa ekarri duen.

Oro har, eta Ganbara honek Iruñeko Udalaren Hirigintzako Kudeaketari buruz gertatu zuen Txostenean adierazi zen bezala *“hirigintzako mekanismoak erabiliz enpresa baten birmoldaketaren alorreko arazoak konpondu nahi dituen espedientea dugu; enpresa horren finantzazko beharrianak aurrez daude mugatuta eta beharrian horiek asetzeko bidea aldarazpena da. Beraz, hirigintzako kudeaketa erabiltzen da beste helburu batzuk eskuratzeko, hots, hiriaren plangintza eta antolamendua ez direnak”*.

6) Europako Batzordean jarri zen salaketa.

1997ko maiatzean, portzelanaren alorreko enpresa batek jarri zuen salaketaren ondorioz, Europako Batzordeko Elkarlehiarako Zuzendaritza Nagusiak prozedura hasi zuen Ponsal/Comepor enpresari eman zitzaizkion laguntzak Europako legeria betetzen zuten ala ez egiaztatzeko.

Halaber, Nafarroako Gobernuari jakinarazi zitzaion agian enpresa onuradunak jasotako diru-laguntzak itzuli beharko zituela eta prozeduraren betearazpidezko ebazpena burutu arte enpresa horri laguntza gehiagorik ez emateko agindu zitzaion.

Txosten hau gertutzen ari den unean prozedura hori alegazioen fasean dago.

7) Administrazioak eman dituen laguntzen eraginkortasuna.

Gure iritziz eman diren dirulaguntza eta laguntzek izaera bikoitza dute, beti ere enpresa onuradunaren arabera:

Ponsal:

Laguntza horiek enpresaren hiltzori egoera luzatzeko balio izan zuten, bere euskarri finantzario nagusia behin eta berriro zergak eta atxikipe-nak ez betetzean baitzen. Horrela, bada, argi eta garbi esaten ahal da 1976. urtetik aurrera ez zuela zuzenean inolako zerga edo atxikipe-nik ordaindu; ordaindu zituenak konpentsazioen bidez edota jasotzeke zituen dirulaguntzen bidetik ordaindu zituen.

Comepor:

Enpresa proiektu hori abioan jartzeko nahitaezkoa izan zen erakundeen lankidetzaz, batez ere alor hauetan:

- Ponsal-en konkurtso-zorretan kitapen nabarmenak egitea; horien gairikina Comepor-ek iren-tsi zuen.

- Gainbalio oso handiak sortarazi zituen hirigin-tzako aldarazpena.

- Nabe berriak eskuratzeko laguntza garrantzi-tsuak.

- Inbertsio berriak egiteko eta lanpostu finkoak sortzeko laguntzak.

Dudarik handiena, dena dela, enpresaren bideragarritasuna aztertzerakoan sortzen da; ondoko faktore hauek hartu behar dira kontuan:

- Lehengoratzeko planaren beraren bideragarritasunak eten gabeko doikuntza eta berrikuspenera darama lotuta, baita eskuratu den enpresa-izaria berriz planteatzea ere. Planaren ez-betetze hori merkataritzako kopuruaren eta bertan azaltzen diren ekoizpenari buruzko nolabaiteko optimismoaren egoten ahal da oinarrituta; alderdi horrek txarrera egin zuen industri proiektu berria abioan jartzera-koan atzerakuntza egon zelako eta ekoizteko teknologia berriei egokitzeko zailtasunak sortu zirelako.

- Jarraikako finantza beharizan berrien ondorioz artean onetsita zeuden geroratzeen epeak zabaltzeko eskabide berriak egin zitzaizkien instituzio publikoiei.

- Nazio merkatuko fabrikatzaileek eta baita hasi berriak ziren merkatuetan gertatzen ari zen barneko eta kanpoko elkarlehia gogorra.

- Europako Batzordean irekita zegoen prozeduragatikoko ustezko gatazka.

Orokorrean, eta **azken balorazio** bezala, Kontuen Ganbara honek uste du Nafarroako ekonomia-erantzutzat estrategikoa ez den enpresa proiektu batean Foru Komunitatearen Administrazioak finantza arrisku garrantzitsuak hartu arren, Ponsal-Comepor enpresek jaso dituzten laguntza handiek ez dutela, itxuraz behintzat, horien bideragarritasuna behin betiko konpontzeko balio izan.

GEIHGARRIAK.

1.GEHIGARRIA. ENPRESA ONURADUNEN EGOERAREN ANALISI LABURRA.

“Porcelanas del Norte, SA” 1957an sortu zen enpresa da eta bere funtsezko jardura ostalaritza eta etxerako portzelana finaren fabrikazioa eta merkaturatzea zen.

Hirurogeiko hamarkadan arestian adierazi den jardura horrek zabalkuntza handia izan zuen eta enpresak inbertsio garrantzitsuak egin zituen, batez ere gainerakoekin fondoekin finantzatu zirenak alegia; beraz, finantza zama areagotu egin zen eta, epe ertainean enpresaren porrota ekarri zuen zioetariko bat hori izan zen.

1979an enpresa –ordurako ekoizteko jardura etxerako portzelanaren fabrikaziora mugatuta zuena– lan-sozietate anonimo bihurtu zen, langileen atal batek eskuratu baitzuen azken ekitaldie-tako emaitza negatiboak kontuan hartuta desagere-pena saihesteko. Transformazio horrek lehengo jabeei 25 milioi pezeta ordaintzea eta aurreko sozietatearen izenean aktibo eta pasibo osoa eskuratzeko ekarri zuen –batez ere instituzio publi-koak–.

Gainerakoekin bitartekoengatikoko finantza zamak eta gastu finkoek erabat agortzen zituzten industri jardueran ekoizten ziren bitartekoak eta, beraz, ezinezkoa zen makinerian eta punta-puntako teknologian inbertsio berriak egitea.

1987an lehengoratzeko eta saneamendu plana onetsi zen industri jarduerari etekina ateratzearan ondoretarako eta bidezkoa zen modernizazioa eta ekoizteko prozesuaren hobekuntzari ekin zitzaion. Dena dela, jarduketaz horiek ez zituen uste ziren emaitzak eskuratu, ekintzarik garrantzi-tsuenetarikoa labe berria instalatzea izan zelako eta ez zuelako funtzionamendu egokirik izan eta, horren ondorioz, zerbitzutik kanpo utzi behar izan zuten.

1990 eta 1992an enpresaren bideragarritasunari buruzko azterlanak eta diagnostikoak egin ziren. Eskuratu ziren ondorioen arabera teknolo-

gia eta instalazioek ez zituzten merkatuak eskatzen zituen beharkizunak betetzen eta, beraz, aukera bakarra erabat berria zen proiektua burutzea zen. Horren finantzaketa instalazioek atzematzen zituzten lurraren salmentarekin eskuratuko zen.

Egoera ekonomikoa larritu egin zen eta horren lekuko kanpoko enpresa batek 1993an egin zuen Auditoretza Txostena dugu, non Ponsal enpresak eskuztatzeke fondo negatiboa zuela eta sozietatea desegiteko Sozietate Anonimoei buruzko Legean aurreikusi diren ustezko kasuak gertatzen zirela baieztatzen baitzen. Arestian aipatu den txosten horretan, halaber, 1994tik aurrera industri eta merkataritzako jarduera 1993an sortu zen "Comercial Europea de Porcelanas, SA" enpresaren bidez eginen zela adierazi zen; enpresa horren xedea ondoko hau zen: *"gizarte-egoera berriari eta kokapen berriari egokitzeko aldaketa eta moldaketa aldietan jardueraren garapen ekonomikoa bideratzea, horrela industri jarduera eta hornitzaile eta bezeroekiko harremanetan proiektuaren garapenaren zioz hartuko diren beste neurri batzuk kalterik eragin ez dezaten"*.

Aipatu den egoera hori 1994ko Lehengoratzeko eta Saneamendurako Planaren barruan aurreikusi zen; plan horretan, funtsean, jarduteko ondoko ardatz hauek hartu ziren kontuan:

- Lan-sozietate anonimo berria eratzea Ponsal-en industri eta merkataritzako proiektua biltzeko –geroago Comepor, SAL izan zena–.
- Fabrika berria eraikitzea.
- Ponsal enpresa ixtea eta likidatzea.
- Ponsal kokatuta dagoen lurra saltzea.
- Erakundearen pasiboaren tratamendua –Nafarroako Gobernua eta Gizarte Segurantzaren–.

Aurreko proiektuak gauzatzeko nahitaezkoa zen, beste erakunde batzuen artean, Nafarroako Gobernuaren berariazko laguntza, hala zorraren eta laguntzen tratamenduari ekiteko nola higiezi- nen salmentarako.

Horrela, bada, Nafarroako Gobernuak, 1994ko ekainaren 6an hartu zuen erabakiaren bidez Nafarroako Parlamentuari Foru Legearen proiektua aurkeztea erabaki zuen; lege horretan ondoko hauek haizu zituen:

- Mailegu edo kredituen bermerako 1.200 milioiko abal solidarioa ematea.
- Foru Komunitatearen jabetzako 20.000 m²-ko industri nabeen saila besterenganatzea; eraikin horiek Cordovillan daude.

Ekintza horiek nahitaezkoak ziren Ponsal enpresaren Lehengoratzeko eta Saneamendurako Plana abioan jartzeko eta betearazteko.

Arestian aipatu den Foru Legearen proiektuarekin batera Memoria bat gertutu zen; testuan ondoko hauek aztertu ziren:

- Enpresaren egoera.
- Garatu beharreko helburuak eta neurriak.
- Bitartekoak.
- Salmentak.
- Instalazio berrien eragina.
- Nafarroako Gobernuaren jarraipena eta kontrola.

Enpresaren egoerari dagokionean, definizioa "PONSALek sortu zenetik pairatu duen eten gabeko krisi egoera" izan zen era horren ezaugarriak hauek ziren:

- Ondare egoera erabat narriatua eta porrot teknikoak, eten gabeko galeren ondorioz alegia.
- Enpresarentzat erabat eutsi ezina zen erakundeekiko zorra.
- Makineria eta instalazio oso zaharkituak.
- Enpresako langileria etenik gabeko doikuntza egoeran murgilduta egotea.

Ordea, enpresak merkatuan izan duen egoera sendotze fasean dago eta arazoa ekoizpenean datza, ez salmentetan.

Lehengoratzeko eta Saneamendu Planaren xedea, funtsean, ekoizteko bitarteko modernoak erabiliz arloko beste enpresa batzuekin lehian aritzeko gauza izanen zen fabrika berriaren instalazioan zetzan. Horretarako ondoko neurri hauek aurreikusi ziren:

a) Erakundeekiko pasiboaren tratamendua, harik eta enpresa proiektu berrirako aurre egiteko moduko bolumen eta baldintzetara ekarri arte, horrela ez bada etorkizunari begi ezinezkoa baita proiekturik taxutzea.

b) Lan-sozietate anonimo berria eratzea, Ponsal enpresako egungo bazkideek gehi bazkideak ez diren beste 22 langilek eratuta; guztira 187 bazkide-langile alegia. L.SA berriaren kapitala bazkideek langabeziagatik dagozkien prestazioak aurreratuta kobratuz INEMetik jasoko dituzten zenbatekoekin ezarriko da (zenbatetsi den munta, guztira: 360 milioi pezeta).

c) Fabrika berriaren proiektua; Cordovillan kokatuta, Foru Komunitatearen jabetzako

eta industri nabeen azalera 20.000 m²-koa. Nabe horiek eskuratzeko prezioa 24.000 pezetakoa izanen da m²-ko, hau da, zenbatetsi den 30.000 pta/m²-ko prezioari inbertsioagatik dirulaguntza-ren kontzeptuagatik %20ko kenkaria egitearen emaitza. Nabe horietan egin behar diren inbertsioen aurreikuspena 2.711 milioi pezetakoa da eta egutegia hau zen: 449 milioi 1994an; 2.074 milioi 1995ean eta gainerako 188 milioiak 1996an.

Aurreko datuak betez gero, fabrika berriaren abioan jartzea 1995eko abuzturako aurreikusi zen eta, salmenten ondoreetarako, funtsean ondorioak 1996an nabariko ziren.

c) Ponsalen lurren salmenta; eragiketa horrekin, hirigintzako kalifikazio berria egin eta zamak arindu ondoren, 1.100 milioi pezeta eskuratu nahi ziren; munta hori inbertsioak finantzatzeko zen.

Ustez eskura izanen ziren bitartekoak eta horien baldintzak hauek ziren:

	Milioika pezetatan	Kontzeptua
Bitarteko propioak	360 1.100	Langabeziaren kapitalizazioagatik PONSAL enpresaren lurren salmentagatik
Dirulaguntzak	511 100	%20 fondo galdura inbertsio berriengatik Fondo galdura, enplegua sortzeagatik (500.000 pta/langileko) Abalatu diren kredituen hobaria
Gainerakoen bitartekoak	200 1.200	Korriturik gabe itzul daitekeen hobaria: 50 milioi pezeta 1996an eta gainerako 150ak 1997an. Foru Komunitateak abalatu dituen kredituak, sorospidezko korrituekin harik eta enpresarentzat gutxi gora-behera kostuaren %5ean ezarri arte; 1998-2003 aldian amortizatzen.

Planean 1994-1998 laurterako aurreikusi diren enpresaren salmentak, milioietan, eta emaitza eta cash-flow-a, ondoko hauek dira

	1994	1995	1996	1997	1998
Salmentak	1.530	1.681	2.017	2.231	2.462
Irabazia (Galera)	(344)	(288)	(107)	27	124
Cash Flowa	(209)	(153)	155	291	392

Salmenten aurreikuspenak lortzeko modukoak dira, nahiz eta erraza ez izan.

Instalazio berriek kostuen egituran eragin handia dutela zenbatetsi da, langileak murrizteko aukera emango dutelako eta, kontsumoei dagokienez, materialen kostua murriztuko delako eta energiaren gastua arrazoitu egingen delako.

Azkenik, Memoriaren 6. idazatian ondokoa adierazi da: "Nafarroako Gobernuak, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana Sailaren bidez, proiektuari esleitu zaizkion bitarteko publikoaren erabilera eta destino egokia bermatzeko jarraipena eta kontrol sistemak ezarriko ditu, baita Planaren kudeaketa eraginkorrerako ere. Helburu hori lortzeko, enpresaren jardunaren ezagutza iraunkorrerako ohikoak diren sistemak ezezik (kanpoko profesionalen bidezko jarraipena, etab.), enpresa berriaren Gobernu organoetan Foru Komunitatearen Administrazioaren eskuordeen presentzia ezarri da eta garrantzitsuak izanen diren erabaki batzuk hartzeko derrigorrezkoa izanen da horien iritzia kontuan hartzea."

Nafarroako Gobernuak Parlamentuari aurkeztu zion Foru Legearen proiektuan eta aurreko Memorian Industria Sailaren txostena zegoen; testu horretan esaten zen Planak, abioan jartzeko, bitarteko publiko eta era guztietako laguntza garrantzitsuen esleipena eskatzen zuela, egungo enpresaren eta bazkide langileen finantza gaitasuna horretarako beharrezkoak ziren inbertsioei ekiteko oso mugatua zelako.

11/1994 Foru Legea, hau da, Nafarroako Parlamentuan tramitazio zuzena eta irakurketa bakarra izan zuenak, 1994ko ekainaren 29ko 44. zenbakiko bilkuran onetsi zen.

Beste alde batetik, Nafarroako Gobernuak, berari dagokionean, 1994ko uztailaren 26ko Erabakiaren bidez "Comercial Europea de Porcelanas, SA" enpresak garatu behar zuen Ponsal enpresaren Lehengoratze eta Saneamendurako Plana onetsi zuen.

1995ean Ponsalek izena aldatu eta Manufacturas Navarra SAL izena hartu zuen; hurrengo ekitaldian Ponsal ixteko eta likidazioari ekiteko prozedura hasi zen; era jarraikorrean Iruña, Vigo, Madril eta Bartzelonako lantegietako 274 langileen lan-kontratua eten zen.

1996ko maiatzean Iruñeko Epaitegian Manufacturas de Navarra enpresaren ordainketen etendura egoera adierazteko eskatu zen. Jarduketa horrekin enpresaren ondasunak eta obligazioak likidatu nahi ziren; zordun nagusiak Nafarroako Gobernuak eta Gizarte Segurantzak ziren -bakoitza

1.200 milioi ingururekin- eta baita lansaripekudunak ere -509 milioi-. Ondasunen zerrendan, batez ere, Mendebaldeko lurak zeuden; bidezko hirigintzako aldarazpena egin ondoren 1.200 milioi pezetako sarrera ekarri zuten (ikus 2.3. eranskina). Hil horretan jarduera eten zuen eta 1996ko irailaren 24an ordainketen etendurako legeko egoera eta behin betiko kaudimengabezia adierazi zen.

Comepor enpresari dagokionean, eta 1995ean zehar, Ponsalen lurren salmentaren atzerakuntzaren ondorioz, SODENA enpresa publikoak 1.000 milioiko abala eman zion kreditu zubia bermatzeko. Halaber, urte horretako azaroan, Comepor proiektua inbertsio eta enplegurako finantza laguntzen barruan sartu zen.

Nafarroako Gobernuak, 1996ko ekainaren 3ko Erabakiaren bidez, 1996ko maiatzaren 10eko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Comepor enpresak lehengo Ponsalen jarduera lehengoratzeko garatu zuen proiektuaren bilakaerari buruz aurkeztu zuen txostenaren jakitun garatu zen.

Orokorrean eta laburbilduz, txostenaren egitura eta edukia hau da:

I. Proiektuaren egoera 1996ko maiatzaren 10ean;

- Langileriaren alorrean enpresako gizarte-indarrekin akordioa eskuratu du eta, legeko ikuspegitik, PONSALetik Comepor-era eskualdaketari ekin zaio. Prozesua maiatzaren 25a baino lehena-go bukatuko da.

*Instalazio eta ekipoen alorrean, abioan jartzeko eta instalazioen doikuntzarako aldi luzea behar ondoren, hasieran aurrekusi zena baino askoz luzeagoa, lehengo fabriketan eskuratzen zirenak baino ekoizpen hobeak eskuratzen hasi ziren. Oso negatiboa den faktorea prozesu berriaren beharrezkoen aurre egiteko langileriaren prestakuntzaren egokitzapen-eza da.

- Ordainketen etenduraren prozedura juridikoa PONSALek plantilako langilerik ez duen unean bertan hasiko da (maiatzaren amaieran). Eragiketa horiek ukitzen dituenak zor txikiak dituzten 6 hartzekodun arrunt dira; uste da aurretiazko negoziazioen bidez kitatzeko aukerak daudela, eta, jakina, bi hartzekodun nagusi, Gizarte Segurantzak eta Nafarroako Gobernuak; horietariko bakoitzaren zorra, gutxi gora-behera, 2.000 milioi pezetakoa da.

- Prozedura ekainaren erdian largets daiteke, horietariko bakoitzarekin akordio norbanakotua sinatuz alegia; horrela, bada, Gizarte Segurantzak

eta Nafarroako Gobernuak lurren gainean dituzten zamak altxa daitezke.

COMEPOR subrogatu egin zen PONSALek Gizarte Segurantzarekin eta Nafarroako Gobernu eta lurren erosle pribatuarekin zituen eskubide eta obligazioetan.

Lurren Salmentagatik kobratuko diren 1.200 milioi pezeta horiekin CANen kreditua, Sodenaren abala eta kontraberme bezala balio duen lurren gaineko hipoteka kitatuko da.

II. Egoera ekonomiko-finanzieroa.

Behin-behineko ustiapen eta finantza planaren kontuak aurkeztu dira, datu eguneratuen arabera doituak alegia. Plan doitu honek aurreikuspenetan gertutu zenak baino ikuspegi pesimistagoa islatzen du. Desbideraketa horien arrazoiak, orokorrean, ondoko hauek dira.

Arazo tekniko larriak abioan jartzerakoan.

Ibilgetu ez-materialaren alorreko desbideraketa bortitza (200 milioi), abioan jartzeko dauden arazo horiengatik.

Atzerakuntza sarreren aurreikuspenetan eta, horregatik, proiektuaren finantza egitura berriz planteatu beharra; horrek guztiak, aldi berean, aurreikusita ez zeuden finantza gastuak ekarri ditu.

Hasierako Planean aurreikusi ziren marginen murrizketa.

Zorpeketa eta korrituen gehikuntza.

Laburturik, 1996-2003 aldirako enpresaren salmenten aurreikuspenak, milioietan, eta baita emaitza eta cash-flow-a ere, ondoko hauek dira

	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
Salmentak	1.360	2.250	2.730	3.180	3.240	3.360	3.480	3.800
Irabazia (Galera)	(880)	(185)	17	118	129	134	137	135
Cash Flowa	(603)	102	316	430	452	470	487	499

Ondorioz, egineran proiektuak **urte bateko atzerakuntza** izan du, hala ekarriko diren fondoan sarrerari dagokienean nola instalazio berrien ondorio izan behar duten hobekuntzak eskuratzeari dagokionean.

III. Neurri finantzarioak eta proposamenak.

“Enpresak zorpeketan sartzeko ezgaitasun osoa eta Nafarroako Gobernuak proiektuan hartu duen konpromiso politiko eta ekonomiko (3.000 milioi) garrantzitsua aintzat hartuta, enpresari laguntzeko aukera bakarra Nafarroako Gobernu da; laguntza hori honela bideratuko da:

- Gizarte Segurantzaren aldeko 200 milioiko abala sei hiletan zehar.

- Enpresari 750 milioiko ekarpena egitea, ondoko bi hauetatik bat erabiliz:

a) NAFINCOren abala eta Industria, Merkataritza eta Turismoa sailetik korrituen hobaria egitea.

b) NAFINCOren mailegua eta Industria, Merkataritza eta Turismoa sailetik korrituen hobaria egitea.

- Hasieran enpresak Nafarroako Gobernuarekin nabeengatik, aurrerakinengatik eta abalaturiko kredituengatik zituen zorren ordainketarako hasieran aurreikusi zen egutegia atzeratzea.

- Zerga zorrari buruzko akordio norbanakotuen proposamena.

IV.- Ponsalen higiezin egorea

Atal honetan, aurrerakinak, aurretiazko birkalifikazioa eta salmenta kudeaketak ezezik, hirigintzako aldarazpenean antzeman den atzerakuntza-oren ondorioz, beharrezkotzat jo da SODENAK abal bat eman dezala kreditu zubia bermatzeko.

1996ko irailean, berriz ere, zenbatespenak eguneratu eta ahalik eta gehien egokitu zitzaizkien antzemandako joerei. Horrela, bada, aldi horretarako (1996-2003) salmenten aurreikuspena mantendu egin da baina emaitza eta cash-flowa aldatu egin dira:

	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
Salmentak	1.360	2.250	2.730	3.180	3.240	3.360	3.480	3.800
Irabazia (Galera)	(1.098)	(205)	1	103	114	122	128	129
Cash Flowa	(821)	83	300	414	437	459	478	493

Hurrengo koadroan aurreko aurreikuspenak eta Auditoretza lokabe baten Txostenaren arabeko 1996ko benetako datuak erkatu nahi ziren. Dena dela, Txosten hori ez dute Ganbararen eskuetan jarri eta ezinezkoa da aurreko aurreikuspen horien fidagarritasuna era egokian erkatzea.

	Hasierako plana 94	Berrikusiatako ñama 96	Enpresen datuak 96
Salmentak	2.017	1.360	1.452
Eraitza	(107)	(1.098)	(*)
Cash-Flowa	155	(821)	(*)

(*) Auditoretzaren Txostena eskuratzearen zain.

Egin den erkaketari dagokionean, 1996ko ekitaldirako 1994ko Planaren zenbatespenak errealtatetik nahiko urrun daudela esan behar da eta badirudi arrazoi horrek 1996an plana aldaraztea ekarri zuela termino errealistagoei doitzeko.

Azkenik, enplegatuen kopuruaren bilakaera adieraziko da –finkoak eta aldi baterakoak–, beti ere Comepor enpresak eman duen informazioaren arabera.

Aldia	Finkoak	Aldi baterakoak	Guztira
96ko uztaila	177	43	220
96ko abendua	180	64	244
97ko apirila	179	65	244

Lanpostu finkoen kopurua egonkor mantendu da; azpimarratu behar da aldi baterako langileen portzentaia gutxi gora-behera ehuneko 26koa dela 1997an.

2. GEHIGARRIA. PONSAL-MANUFACTURAS NAVARRA, SAL. ENPRESARI EMAN ZAIZKION DIRULAGUNTZAK ETA GAINERAKO LAGUNTZAK.

2. gehigarri honek hiru azpiatal ditu, Ponsal-Manufacturas Navarra enpresari eman zaion laguntzaren izaeraren arabekoak alegia.

Horrela, bada, 2.1. azpierzansina batez ere Nafarroako Gobernuak eman dituen dirulaguntza edo gerorapenei buruzkoa da; 2.2. eranskinean ordainketen etenduraren prozedura aztertu da, batez ere Nafarroako Gobernua eta Gizarte Segurantzarekin sinatu diren banakako hitzarmenak;

azkenik, 2.3.ean enpresa dagoen lurak ukitu dituen Iruñeko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren aldarazpena berrikusi da.

2.1. DIRULAGUNTZEN ETA GAINERAKO LAGUNTZA PUBLIKOEN AZTERKETA.

Igaro den denbora eta izaki, enpresa edo norbanako batek jaso dituen laguntza guztiak ezagutzeko biderik ematen duen sarbide zentralizatuko sistemarik ez dagoela kontuan hartuta, 1986a baino lehenago eman ziren laguntzen azterketa (SGEF ezarri zen urtea) beste espediente batzuetan aurkitu diren datuetan, sail guztietako langileek eman diguten informazioan eta baita aurreko txostenei buruzko Ganbarako bertako paperetan oinarritu da.

Horregatik ezin dugu bermatu 1986a baino lehenago eman ziren laguntza guztiak berrikusi ditugunik.

Aurreko lerrokadaren edukia kontuan hartuta, jarraian Ponsal-Manufacturas Navarra enpresak eskuratu zituen dirulaguntzak eta gerorapenak aztertuko ditugu. Berrikuspen horri ekiteko batez ere ordena kronologikoari jarraitu diogu.

- Foru Diputazioak, 1979ko otsailaren 15eko Erabakiaren bidez, 30 milioiko fondo galdurako dirulaguntza eman zion Industri Sustapenerako Egitarauaren pentzutan, zertarako-eta ordainketen etendura eta enpresaren itxiera saihesteko; une horretan enpresa langileen eskuetan geratu berria zen eta lan-sozietate anonimo bihurtu zuten. Dirulaguntza hori bost urtekotan ordaindu zen, bakoitza 6 milioikoa, eta baldintza moduan enpresak jarduera eta enplegu mailari eustea ezarri zitzaion.

Eskuratu dugun informazioaren arabera, lehenbiziko urteko kuota ordaintzea baimendu zen –6 milioi–, emakidaren Erabakian –1989ko uztaila– ezarri denarekin bat, hain zuzen “... enpresak 1979rako ekarri dituen frogagiritan eskatu diren beharbizunak bete tituela esaten ahal da...”.

Dena dela, ordainketa ez zen betearazi, delako munta hori Ogasunak konpentsatu zuelako hurrengo idazatian azalduko den gerorapenaren urteko lehenengo kuotari aurre egiteko.

Hasieran behintzat ez ziren gainerako bost urteroko kuotak -4, horietariko bakoitza 6 milioi-koa-, enpresak ez zituelako horretarako beharrezko agiriak ekarri. Gero, hori gora-behera eta bidezko atalean ezarri den bezala, 1987 eta 1988an gainerako 24 milioiak ordaindu zitzaizkion.

- Halaber, data horretako Erabakiaren bidez (1979.2.15) 1978aren abenduaren 31ra arteko zerga zorren ordainketaren zatikatzea eta gerorapena eman zitzaion, bost urteko eperako -1979ko martxotik 1984ra arteko martxora arte- eta 30 milioiko munta osatu zuen; horietatik 24 zerga zorrengatik ziren eta beste 6 geroratzearen korrituengatik. Zerga zor horiek (milioietan) ondoko hauei buruzkoak dira:

LPEZ	2
Luxua (1976 eta 1977ko aktak)	11
Sozietateak (1975era arte)	2
ETZ (1976ko lehen hiruhilekoa eta 1978)	9

Geroratze horren lehenengo ordainketa, dirudenez, arestian aipatu den 6 milioiko urteroko kuotaren konpentsazioan egin zen. Gainerako ordainketak egiteko sistema ez da inon azaltzen.

- Kontuen Ganbara honek Nafarroako Gobernuaren 1981eko Kontu Orokorren Txostena gertutzeko laneko paperetan ezarri zenaren arabera 1980 eta 1981ean Ponsalek gutxi gora-behera 5,5 milioi pezetako dirulaguntzak jaso zituen ikerkuntzarako laguntzarako.

Eraso denaren arabera, munta horretatik gutxienez 2 milioi Nafarroako Gobernuko Diruzaintzak konpentsatu zituen.

- 1981eko abenduaren 18ko Foru Diputazioaren Erabakiaren bidez 7,4 milioi pezetako laguntza eman zitzaion -higigabetu finkoaren inbertsio-agatiko ehuneko 12ari dagokiona- Abagunezko Ekintzetarako Industri Planaren onurak hartu zituelako. Hasiera batean emandako dirulaguntza 11,2 milioi pezetakoa zen; dena dela, Industriako zerbitzu teknikoek egin zuten ikuskapenaren ondorioz laguntza hori murriztu egin zen eta arestian aipatu dena 7,4 milioitan utzi zuten, enpresak aurreikusitako ziren baino inbertsio gutxiago egin zituela frogatu baitzen.

Eskuratu dugun informazioaren arabera jakin dakigu azken laguntza hori Betearazpidetzako Agentziarekin zeuden zorrak konpentsatzeko erabili zela.

- Nafarroako Gobernuak, 1987ko ekainaren 12ko Erabakiaren bidez eta bere eskumeneko

alorrari zegokionean, krisi egoeran dauden enpresen saneamendu eta lehengoratzeko laguntzen emakida araupetu duen Foru Legearen ondoretarako, Ponsalek aurkeztu zion Saneamendu eta Lehengoratze Plana onetsi zuen. Enpresak 1985eko ekainean kanpoko etxe bati agindu zion txosten honen idazkuntza; gero, eta Industria Sailak aginduta, beste bi aditu lokabek aztertu eta osatu zuten eta, halaber, baltzuaren ezarpeneko alorreko merkataritzako azterlan batekin osatu zen.

Arestian aipatu den Foru Lege horretan ezarri denarekin bat, ondoko laguntza hauek eman ziren:

- 51 milioiko fondo galdurako laguntza.

- 1987ko ekainaren 6ra arteko zerga zorraren geroratze eta zatikatzea; printzipala eta korrituak batuz laguntza horren munta 572 milioi-koa zen. Eragiketa horrek 6 urteko indarraldia izan zuen, eta 2ko ezaldia; korritu tasa %8koa izan zen eta berme moduan sozietateen ondasunen gaineko bigarren hipoteka-higigarriaren eraketa jarri zen. Aipatu den munta horren printzipala 351 milioi-koa zen, geroratzea eskuratu aurreko korrituak 51 milioi-koa eta geroratzearen korrituak 170 milioi-koa. Printzipala ondoko zor hauetan banakatzen zen (milioietan):

Betearazpidetzako Agentzia	216
ETZ (1983tik 1985era)	50
BEZ (1986)	28
Lanagatiko atxikipenak (1983tik 1985era)	57

Betearazpidetzako agentziaren muntaren barruan, beste elementu batzuen artean, aurreko lerroketan azaldu den lehenengo gerorapena egoten ahal da. Halaber, ETZ eta batez ere 1979tik 1982ra arteko atxikipenak ditu.

Eskura daukagun informazioarekin bat enpresak korrituen hiru urteroko kuota baino ez zituen ordaindu, 40 milioi-koa alegia; horietatik 24 milioi Industri Sustapenerako Egitarautik ordaintzeke zeuden dirulaguntzen konpentsazioaren formularen bidez gauzatu ziren.

- 1987ko ekainaren 9ko Foru Aginduaren bidez enpresa Inbertsiorako eta Enplegurako Laguntza Finantzarioetarako Planak-Ekintza Zuzenak ize-nekoan sartu zen, horretarako industri zabalkuntzarako proiektua aurkeztuz; proiektuan 138 milioi-ko inbertsioa aurreikusitako zen, funtsean makineria eta instalazioetan.

Dirulaguntza, 1987ko abenduaren 22ko Ebazpenaren bidez eta Gobernuaren zerbitzu tekniko-

en ikuskapena egin ondoren, 33 milioikoa izan zen; horren banakapena hau izan zen: 27 milioi benetan gauzaturiko ibilgetu materialagatik –136 milioi– eta 6 milioi energia aurrezteagatik (inbertsioaren munta osotik 61 milioi kontzeptu horretarako izan zirelako).

Gero, 1987ko irailaren 3ko Foru Aginduaren bidez, Inbertsiorako eta Enplegurako Laguntza Finantzarioetarako Planak-Ekintza Zuzenak izenean industri zabalkuntzarako proiektua onartu zen, kasu honetan 305 milioikoa, batez ere maki-nerian.

1988ko abenduaren 26ko Ebazpenaren bidez, Gobernuaren ikuskapen teknikoa egin ondoren, 85 milioiko laguntza ordaindu zen; horren banakapena hau izan zen: 61 milioiko fondo galdurako laguntza bat, benetan gauzaturiko ibilgetu materialaren %20a –310 milioi– eta 25 milioiko laguntza osagarria, energia aurrezteko erabili zenaren %10a –284 milioi–.

Aurreko laguntzak –33 milioi eta 85 milioi– metalikoan ordaindu ziren, maila teorikoan behintzat enpresak eguneratuta zituelako zerga betebeharrak.

Azpiarratu behar da inbertsio nagusiak, aurreko zenbatekoetan, labe berria erosteko ere bazirela, gero arrazoi teknikoengatik porrot egin zuen arren.

- 1987an Ponsalek ordaintzeke zeuden urteko kuoten ordainketa eskatu zuen –1980tik 1984ra artekoa, biak barne– Nafarroako Industri Sustapenaren Egitarauaren barruan eman zen fondo galdurako aipatu den dirulaguntza hori zegokiona eta ordaintzeke 24 milioiko munta zuena. Horretarako 1978 eta 1987 urteen arteko jarduera eta enpleguaren maileri buruzko dokumentazioa aurkeztu zuen.

1987ko abenduaren 31ko Ebazpenaren bidez 22,8 milioi pezetako ordainketa agindu zen eta gainerakoa 1988ra arte geroratu, hots, 1,2 milioi, harik eta 24 milioi pezetak osatu arte. Emakida horrek bidezko txosten teknikoak izan zituen baina ez zen zuzenean ordaindu, konpentsatu baizik.

- Ponsalek, halaber, beste dirulaguntza batzuk jaso zituen laguntza tekniko eta azterlanen kontzeptupean, horien munta, guztira, 6,6 milioikoa izan ez, ondoko banakapen honekin:

Gerentearen kontratatzea	2
Ekonomia eta gizartearen zuzperketa	3,1
Kooperatibak eratzea	0,3
Auditoretza ekonomikoa	0,7
Ingurugiroaren auditoretza	0,5

- Azkenik, 1992an kalitatea eta industri diseinua sustatzeko laguntzen emakida antzeman da, baita lehiakortasuna hobetzekoak ere; horien munta, guztira, 4,8 milioikoa izan zen. Aztertu dugun kontabilitateko informazioaren arabera ez da azaltzen laguntza horiek ordaindu zirenik.

Horren guztiaren **ondorioz**, eta aurreko lerrokadetan aipatu ditugun mugak kontuan hartuta, ondoko alderdi hauek azpimarratuko genituzke:

a) Porcelanas del Norte, SAL enpresak 1979-1992 aldian Nafarroako Gobernuarengandik jaso zituen laguntzak, guztira, 219 milioi pezetakoak izan dira. Halaber, zerga zorraren bi geroratze eskatu eta eskuratu zituen, kasu honetan munta 602 milioikoa izan zelarik.

b) Enpresak behin eta berriro ez zituen zerga betebeharrak bete, eta hainbeste gerorapen eta zatikatze eskatu zituen, zertarako-eta dirulaguntza batzuk dirutan kobratzeko –batez ere krisi eta lehengoratzearen alorrekoak–, horretarako nahitaezko beharkizuna delako Foru Ogasunarekiko egoera araupetuta izatea.

c) Halaber, ez zituen bete aurreko geroratze horien epeak. Epe luzera, hala jokatzeko era honek nola aurreko idazatian adierazi denak ordainketen etendura gertatu zenean Ponsalek aurkeztu zuen erakundeekiko zor nabarmena ekarri zuten.

d) Aztertu ditugun agirien arabera esaten ahal da Gobernuak enpresak lehengoratzeko egin zituen proiektu guztietan aurreikusitako inbertsioen benetako burutzapena berrikusi duela.

e) Espedienteetan ez dago Nafarroako Gobernuak dirulaguntzen emakida eta abonamendua egin aurretik enpresak Gizarte Segurantzarekin zituen betebeharren betetzeari dagokionean egin duen kontrolari buruzko inolako erreferentziarik.

f) Gertakizunek argi frogatzen dute laguntza publikoak eta batez ere Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzarekiko ordaintzeko betebeharrak ez betetzeak Ponsal enpresaren hiltzori egoera luza-tzeko izan zirela; azken finean enpresa horrek derrigorrez itxi behar izan zuen.

2.2. PONSALEN ORDAINKETEN ETENDURA.

Aurreko jarduketak

Ponsalen likidazio eta ixteko prozesua, egine-ran, 1996ko apirilean hasi zen, Nafarroako Lan Zuzendaritza Nagusian enpresaren 274 langileen enplegu erregulaziorako espedientea aurkeztu zenean alegia; orduan eman ziren arrazoiak

enpresaren egoera ekonomiko-finantzario larria eta industri jarduerarekin aurrera jarraitzeko aukerarik eza izan ziren. Eskabide hori 1996ko apirilaren 24an onetsi zen.

Ordainketen Etenduraren espedientea aurkeztu aurretik eta enpresaren likidazioari ordena egokian ekitearen ondoretarako, harremanak ezarri ziren hartzekodun nagusiekin –hau da, alde batek Nafarroako Gobernua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, gutxi gora-behera 2.100 milioi pezetako zorrarekin, eta, bestetik, soldatapekoak, 509 milioi pezetarekin–, alderdi guztientzat formularik onuragarrienak eskuratzeko.

Aktibo bezala, sozietateak Mendebaldean zituen lurra eskaini zituen, hau da, instalazioak zeuden tokia, eta baita handik hurbil, Barañainen, zegoen merkataritzako lokal bat ere; halaber, soldatapekoen zorraren zatirik handiena kitatzeko ondasun higikorak ere eskaini zituen.

Baina ondasun higikor horiek Nafarroako Gobernuaren eta SODENAREN hipotekei lotuta zeuden, eta baita Nafarroako Gobernuak, Gizarte Segurantzak eta beste zordun txikiago batzuk bahituta ere, zorren berme bezala alegia, salbu eta SODENAREN kasuan, 1.000 milioiko abala bermatzen baitzuten.

Lurrei buruz, 1995eko uztailaren 5ean salerosketarako kontratua sinatu zen, gutxienez 1.200 milioiko muntakoa; baldintzarik funtsezkoena Iruñeko antolamenduari buruzko plan orokorraren unean uneko aldarazpenaren behin betiko onepena zen (ikus 2.3. idazatia).

1996ko maiatzaren 31n, Iruñeko 7. zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegian, Manufacturas Navarra, SAL enpresaren ordainketen etendura egoeraren adierazpenaren eskabidea aurkeztu zen; halaber, kontuhartzaile judizialak eta zordunak izendatzeari ekin zitzaion.

Gizarte Segurantzarekiko akordioa

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin izan ziren elkarrizketen emaitza 1996ko uztailaren 2an sinatu zen Akordioa izan zen. Akordio hori Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eta Manufacturas Navarra, SAL enpresak izenpetu zuten eta, bertan, sozietateak zuen egoera ekonomikoa kontuan harturik, 2,136 milioikoa zen konkurtso-zorraren prozesuari lotuta zegoen zorra ordaintzeko ondoko baldintza norbanakotuak ezarri ziren:

“1.- Nabeen eta enpresa dagoen lurren salmentarekin eskuratuko den munta abstentzio eskubidea duten zorpekodunen zorren ordaintzeko da, hau da, Gizarte Segurantzaren Diru-

zaintza Nagusia eta Nafarroako Gobernua (Nafarroako Foru Ogasuna) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, higiezin salmentaren prozesuan, 585.982.811 pezetako zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa hartu du; horietatik 200 milioi honako Akordio hau sinatuko den egunetik zenbatuko den sei hileko gutxieneko epean ordainduko dira eta Nafarroako Gobernuaren abalaren bidez bermatuko dira, NAFINCO, SA sozietatearen bidez alegia; gainerako munta, hau da, 385.982.811 pezeta Comercial Europea de Porcelanas, SA enpresak ordainduko ditu; ordainketa hori 5 urteko epean eginen da, eta horietatik lehengo biak ezaldikoak izanen dira eta diruaren legezko korrituei dagokiena ordainduko da. Horretarako, etenduraren eskabidea egin aurretik, aparteko geroratzetako hitzarmena sinatuko da Diruzaintzarekin eta, aldi berean, “Comercial Europea de Porcelanas, SAL” enpresak hori betetzeko konpromisoa bermatuko du.

2.- Akordioaren ondorioz, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zorra osorik ordaindu eta kitatutzat joko du, hitzartu diren baldintza horiek betez ordainduko den atala izan ezik.

3.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ondorerik gabe utziko ditu gertatu dituen bahiturak eta indarrak gabe utziko ditu, zertarako eta Nafarroako Gobernuak arestian adierazi diren 200 milioi pezetak ordainduko direla bermatuko duen unetik higiezin eskualdaketa bidera dezan.”

Beraz, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin sinatu zen Akordioan 1.550 milioiko kitapena egin zen, hau da, konkurtso-prozesuari lotuta zegoen zorraren %72,57a; ordaintzeke geratzen zen munta 586 milioikoa zen eta horiek ordaintzeko era hau zen:

- Akordioa sinatu eta 6 hileko epean: 200.000.000

- 5 urteko epean, bi ezaldikoak direla, eta diruaren legezko korrituekin: 385.982.811

NAFINCOk, 1996ko uztailaren 2ko idazkiaren bidez, kosturik gabe onartu eta abalatu zuen 200 milioi pezetako zenbatekoaren ordainketa. Aipatu den munta hori 1997ko urtarilean ordaindu zen Nafinco enpresak berak Comepor enpresari egin zion maileguaren atal baten bidez (ikus 3.3.a).

Gure lanaren burutzapenagatik Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Nafarroako Probintzia Zuzendaritzak jakinarazi zuen 386 milioiko aparteko gerorapena tramitazio fasean zegoela.

Nafarroako Gobernuarekiko Akordioa

1996ko irailaren 16an Nafarroako Gobernu eta Manufacturas Navarra, SAL enpresaren arteko Akordioa sinatu zen; testu horretan enpresak bizi zuen egoera ekonomikoa eta Nafarroako Ogasun Publikoarekin hartuta zuen zor itzela kon-tuan hartuta, eta bideragarritasun proiektuari ego-kitzearen ondoretarako, 1996ko maiatzaren 31n sozietateak Nafarroako Gobernuarekiko 2.220 milioiko zorra onetsi eta munta hori kobratzeko baldintza norbanakotuak ezarri zituzten.

Zorraren barruan ondoko kontzeptu hauen bereiztu zituzten (milioietan):

Kontzeptua	Printzipala	Premiamenduzko		
		Korrituak	bidea	Guztira
Geroratua, 1987	402	457	76	935
BEZ	429	92	100	621
Lanagatiko atxikpenak	440	101	123	664
Guztira	1.271	650	299	2.220

* "Korrituen" zutabea, premiamenduzko bidea aurretik sortutakoak dira.

Ikus daitekeen moduan, 1987ko Saneamendu eta Lehengoratzte Planean eman den geroratzea oso-osorik sartu da. B.E.Z.a eta ordaintzeke zeuden lanagatiko atxikpenak 1989ko laugarren hiruhilekotik 1996ra artekoak dira.

Zenbateko horien gaintan ondoko baldintza bereziak ezarri ziren:

- Adierazi den zorretik ordaindu behar den kopuru osoa 614 milioi pezetakoa zen.
- Adierazi den zenbateko horren ordainketa zortzi urtetan egin behar zen, kuota berdinetan, horietariko bakoitza 76.750.000 pezetakoa; lehen-biziko ordainketa 2004ko abenduaren 20a aurretik behar zen egin.
- Honako gerorapen honek ez du inolako korriturik eraginen.
- Hizpatu diren zenbatekoen ordainketak Comepor enpresak eginen ditu; enpresa horrek zorra onartu du eta, ondorioz, hori ordaintzeko obligazioa.
- Honako akordio honen eraginez, Nafarroako Gobernuak etendura egin duenaren jabetzakoak

diren ondasun higigarri eta higiezinen gainean egin dituen bahiturak ondorerik gabe uzteko konpromisoa hartu du eta eragiketa horiek indarrrik gabe utziko ditu, eskualdaketak egiteko aukerak emateko alegia.

Laburtuz, Nafarroako Gobernuarekin egin zen Akordioan 1.606 milioiko kitapena egin zen, hau da, konkurtso-prozesuari lotuta zegoen zorraren %72,34a; ordaintzeke, beraz, 614 milioi geratzen ziren, eta kopuru hori 2004tik hasi eta 2011ra arte ordainduko dira, korriturik gabe.

1996ko irailaren 13an, hitzarmen berezian ezarrita zegoena betez, enpresak ordainketen etenduraren onespina egin eta gero harturiko zorra baldintza berezietan berriz geroratzea eskatu zuen, kasu honetan munta 31 milioikoa zelarik. Zor hori 1996ko ekaina, uztaila eta abuztuko PFEZren atxikipenengatik zen -7.365.751 peze-ta- eta 1996ko abuztuko B.E.Z.agatik -23.384.201 peze-ta-.

Irailaren 16ko 195/1996 Foru Aginduaren bidez arestian adierazi den gerorapena eman zitzaion Manufacturas Navarra SAL enpresari. Ordainketa zortzi urtetan egin behar zen, 2004tik 2011ra arte, bakoitza 3.843.744 pezetakoa. Ordainketa horiek Comepor-ek onartu behar ditu.

Ordainketen etendura

Kontuhartzaille Judizialek "Manufacturas Navarra, SAL" enpresaren ordainketen etendurari buruzko espedientea gertutu zuten 1996ko irailean. Txosten horretatik ondoko hauek azpimarratu-ko genituzke:

a) Ordainketen etendura eragin duten zioei buruz, finantza arazoak hala ustiatzeagatik eten gabeko galerengatik nola finantzen alorreko gale-rengatik direla. Diruzaintzako narriadura itzelari aurre egiteko enpresak "etenik gabe instituzio publikoekiko ordainketa betebeharrak ez betetze-ari ekin zion".

Beste alde batetik, ez zen kopuru nahikoa sal-tzen eta salmenten kopuru horren margina ez zen gai langileria eta finantzen alorreko gastu finkoen egiturari eusteko.

b) 1996ko maiatzaren 31n kontuhartzailtzak aurkeztu zuen kontabilitatetik kanpoko egoeraren balantzea hau izan zen (milioietan):

AKTIBOA	
Ibilgetua	1.680
Izakinak	24
Zordunak	2
Diruzaintza	14
	1.720

PASIBOA	
Hartzekodunak	4.998

ALDEA	3.278
-------	-------

c) Hartzekodunen 4.998 milioiak ondoko era honetan xehekatzen dira:

Lehenespena duten hartzekodunak	4.865
Nafarroako Gobernua	2.220
Gizarte Segurantza	2.136
Lan-pasiboak	509
Hartzekodun arruntak	133

Gizarte Segurantza eta Ogasunarekin Akordioa heldu ondoren, halaber, akordioa sinatu zen langileekin; horren arabera langileok Manufacturas-en makineriaren jabe egiten ziren eta Comepor-en eginen zen kapital gehikuntzara ekartzeko konpromisoa sinatu zuten, diruzkoa ez den ekarpen bezala alegia. Aldi berean, akordio norbanakotua sinatu ziren hartzekodun arruntekin.

Azpimarratu behar da Gizarte Segurantza -586 milioi- eta Foru Ogasunarekin -614 milioi- zorrean zeuden kopuru eta lurren salmentagatik aurreikusi zen etekina -1.200 milioi- bat datozela.

1996ko irailaren 24an, Iruñeko 7. zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegiak, Manufacturas Navarra, SAL enpresaren "legezko ordainketen etendura egoera adierazi zuela, pasiboa aktiboa baino handiagoa zelako. Zordunari hamabost eguneko epea eman zitzaion berak edo bere izenean jardungo zuen pertsona batek 3.278.138.474 pezetako zenbatekoa zainpetu, bermatu edo ordaintzeko; zenbateko hori pasiboa eta aktiboaren arteko aldeari zegokion; eragiketa horren bidez behin-behineko kaudimengabeziaren adierazpena behin betiko kaudimengabezia bihurtuko zen".

Hartzekodunen Batzar Orokorren deialdia 1996ko azaroaren 27rako egin zen eta horretan ere eutsi egin zitzaion behin betiko kaudimengabeziaren adierazpenari.

Manufacturas Navarra, SAL enpresak hasi zuen 351/96-A zenbakiko ordainketen etendura-

ren espedientearen eman zen 1996ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bidez, proposaturiko hitzarmena onartu zen; aurrez hartzekodunek hitzarmen horren aldeko iritzia eta botoa eman zuten.

1997ko urtarrilaren 9an ordainketen etenduraren espedientearen kontuhartzailletza judizialaren etendura dekretatu zen.

2.3. IRUÑEKO ANTOLAMENDUARI BURUZKO PLAN OROKORRAREN UNEAN UNEKO ALDARAZPENA ETA LURREN SALMENTA.

Eranskin honetan, alde batetik, hasierako egoera eta Ponsal enpresak Mendebaldean zituen lurzatiei aplikatu zitzaizkien hirigintzako aldarazpenak eta, bestetik, lur horien salmenta aztertuko dira.

Jarduketa unitatearen hasierako egoera

Ponsal enpresak atzematen zituen lurrak 1959 erosi zitzaizkion Iruñeko Udalari; lurrok 1980ko uztailaren 28an behin betiko onetsi zen Mendebaldeko Plan Partzialean zeuden sartuta.

Lurzoru horrek, lurzoru urbanizagarri programatuaren sailkapena zituenak, berariazko egitaraua eta burutzeko epe mugagabea zituen.

1984ko Iruñeko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (testuan zehar HAPO izanen denak) arestian aipatu den Mendebaldeko Plan Partziala bere zehaztapenen barruan sartu zuen.

Mendebaldeko Plan Partzialaren memoriatik, eta honako txosten honen ondoretarako, ondoko alderdi hauek azpimarratuko genituzke:

- Hiri diseinuari dagokionean, oro har gehiegizko garaiera ekidin nahi da eta, beraz, hiriaren alde honetan garaiera beherakorrak taxutu dira.

- Porcelanas del Norte fabrikari dagokionean "logikoa dirudi zaintzea, batez ere ez duelako ke, zarata... bezalako eragozpenik sortarazten". Dena dela, baldin eta enpresak lekualdatzea erabakitzen badu, lur horiei egoitzazko esleipena ezarri zitzaien.

Beraz, enpresaren iraupena jasaten da plan-gintzan ezarri diren zehaztapenen burutzapenari epe finkorik ezarri gabe eta, ez hori bakarrik, egungo eraikinean hobekuntzak ezartzeko aukera ere aurreikusi zen.

- Ezaugarrien fitxaren arabera Ponsalen lurrak Plan Partzialaren H jarduketa unitatearen barruan daude. Halaber, birlurzatiketa prozesuaren ondorioz, jarduketa unitate horri urbanizatu beharreko alde bat itsatsi zitzaion, non beste jarduketa unita-

te baten lurak ere sartzan baitziren, zehatzago esateko C jarduketa unitatekoak.

- Ezaugarri eta zehaztapen nagusiei dagokien ondoko hauek adieraziko ditugu:

Jarduteko sistema: Konpentsazioa.

Lurzoru mota: Urbanizagarria, egitarau propio-duna, burutzapena egiteko eperik gabe.

Ezaugarri nagusia: Egoitzazkoa.

Azalera, guztira: 20.643 m².

Azalera eraikigarria: 17.172 m².

Aprobetxamendua: 3,2, m²/m².

Batez-besteko aprobetxamendua: 1,829 m² homogeneizatu/ekarri den m²-ko.

Aprobetxamendu mota: 0,832 m²/m².

Etxebizitzen kopurua: 128

Etxebizitzen dentsitatea: 72,4 etxeb./Ha.

Eraikinen altuera: Behekoa + 4 eta behekoa + 4 + atikoa

Merkataritza aldeak: 2.100 m² (blokeen beheko solairuetan).

Eskola aldea: 13.338 m².

Espazio libre publikoak (jardina): 8.250 m².

* *Ganbara honek egin duen zenbatespena.*

- Balorazioa: Hirigintzako aldarazpenari ekin aurretik enpresa pribatu batek egin zuen tasazio txostenean ezarri denarekin bat, Ponsalen lurak dauden orubeen balioa merkatuan, 1994ko ekainean, 483 milioikoa zen; dena dela ez zen kontuan hartu 20 etxebizitza eraikitzea aurreikusita zegoen lurzati bat.

Katastroko balioari dagokionean, Ponsalen instalazioak, beti ere espedientean dagoen lurzati-keta-zedulan ezarri denarekin bat, 422 milioikoa zen 1995eko apirillean.

Ponsal lehengoratzeko planak

Gogoraraztearen ondoreetarako baino ez, esan behar dugu 1990etik aurrera Ponsalen lehengoratze eta saneamendurako azterlan eta plan ia guztietan finantzaketari ekiteko iturri propio bezala Mendebaldeko lurren salmentak ekarriko lituzkeen bitartekoak adierazten zirela.

Hasieran fondo horiek instalazio berriak finantzatzeko ziren; gero, ordea, erakundeekiko zorrak kitatzeko ziren.

Jarduketa horiek, ezer egin aurretik, egon dauden lurzati hirigintzako aldarazpena behar

zuten, errentagarritasuna-gainbalioak gehitzearen ondoreetarako eta, beraz, ustezko erosleentzat erakargarriagoak bihurtzeko.

Hirigintzako 1. aldarazpena (onetsi ez zena).

1991n Ponsal enpresak Mendebaldeko Gara-penerako Plan Partzialaren aldarazpena eskatu zuen.

Aldarazpen hori bidezkozteko bi arrazoi zeuden:

a) Lur horiek atzematen zuten jarduketa unitatea ekonomikoki bideragarri bihurtzea.

b) Barañain Etorbideko ardatza sustatzea eta zuzkitzea.

Horretarako, espedientean azaltzen den Iruñeko Udalaren Hirigintzako Gerentziaren txostenarekin bat, ondokoa eskatu zuten: "ezarrita zegoen egoitzazko erabilera merkataritzako eta zerbitzuen alorreko erabilera bihurtzea, beti ere Plan Partziallean eman den aprobetxamenduari eutsiz, nahiz eta beste antolamendu batekin, dentsitate handiagokoa solairuko atzemateari dagokionean eta, ondorioz, espazio libre publikorako espazioa murriztuz eta zorupea atzemanaz, proposatu diren merkataritza eta zerbitzuen alorreko erabilei eusteko aparkatzeko plazen estandar altuagoa eskuratzeko".

Ganbara honek aldarazpen hori Iruñeko Udalaren hirigintzako kudeaketari buruzko Txostenaren barruan aztertu zuen (NPAO, 26. zenbakikoa, 1995eko apirilaren 19koa). Horregatik, azterlan horretan adierazi ziren oinarriko alderdiak baino ez ditugu transkribatuko:

Horrela, bada, arestian adierazi den Gerentziaren txostena honela amaitzen zen "...ez gaude espediente araupetu baten aurrean, eta berriz ere duen zuhurtziarakotasunezko erabateko izaera errepikatu behar dugu, proposamena onestearekiko inplizitua. Ez dago arrazoi objektibagarririk berez aldaketa bidezkozteko. Dena dela, interes publikozko arrazoiak daude, industri birmoldaketa prozesu bati egiten zaizkion ekarpen publikoak murriztu nahi direlako..."

Ganbararen txostenak honela jarraitu zuen:

"1991ko maiatzean Udalaren Osoko Bilkurak hasieran onetsi zuen arestian aipatu den aldarazpena; behin-behineko onepenerari ekiteko baldintza bezala Ponsal, Nafarroako Gobernua eta birmoldaketa prozesuan lagunduko duten erakundeen arteko hitzarmena sinatzea ezarri du, zertarako-eta hirigintzako aldarazpenak eragingo dituen gainbalioak hertsiki aplikatuko direla bermatzeko.

Behin-betiko onespén hori ez zen inoiz burutu.

Eragiketa horren helburua, oro har, udal plangintzaren aldarazpenaren bidez gainbalioak ekoiztea eta Nafarroako Gobernuarekin enpresak bideragarritasun plana negoziatzea da.

Ondorioz, hirigintzako bitartekoak erabiliz enpresa baten birmoldaketa arazoak konpondu nahi dituen espediente baten aurrean gaude; enpresa horren finantza beharrianak aurrezarrita daude eta beharrian horiei aurre egiteko aldarazpenaren bila dabilta. Beraz, hirigintzako kudeaketa berriazkoak ez diren beste helburu batzuetarako erabiltzen ari dira, hots, plangintza eta hiri antolamendua ez direnak.”

Hirigintzako 2. aldarazpena

1995eko martxoan Ponsal enpresak HAPOn unean uneko aldarazpenari ekiteko proposamen berria aurkeztu zion Iruñeko Udalari.

Proposamen hori bidezkoetzeko, funtsean, aurrekoan ezarri ziren arazoak eman zituzten:

a) Hirigintzako antolamendua bideragarri bihurtzeko beharrian “tokia transformatzea bideragarri bihurtzeko beharrezkoa den aprobetxamendua”, “proiektatu den antolamenduaren kalitatea eta bideragarritasun ekonomikoaren arteko orekarik onenak eskuratzeko” ahaleginak eginez.

b) Hiriaren alde bat amaitzea, egon dagoen bilbadura inguruan dauden eraikinen antzekoekin osatuz.

Horregatik, bada, aldea aurreikusitakoa ez den beste era batera antolatzea proposatu zuen, jarduketa unitate berria sortuz eta mugatuz, erabilen beste definizio batzuk ezarriz, lurzoruaren jabetzaren aprobetxamendua gehituz, egoitzako dentsitatea gehituz eta ekipamendu eta espazio libreetarako lurzoruak murriztuz.

Jarraiko koadroan jarduketa unitate berriaren ezaugarriak eta zehaztapenak ezarri dira:

Lurzoru mota: Hiri lurzorua.

Erabilera xehekatua: Egoitzakoa eta merkataritzakoa.

Azalera, guztira: 20.643 m².

Azalera eraikigarria: 27.643 m².

Batez-besteko aprobetxamendua: 2,363 m² homogeneizatu/ekarri den m²-ko.

Aprobetxamendu mota: 1,353 m²/m².

Etxebizitzen kopurua: 180

Etxebizitzen dentsitatea: 87,2 etxeb./Ha.

Eraikinen altuera: Behekoa + 5, Behekoa + 8 eta Behekoa + 11

Merkataritza aldeak: 8.563 m²

Eskola aldea: 10.425 m².

Espazio libre publikoak (plaza): 3.765 m².

Tramitazioa hasi zenean Iruñeko Udalaren zerbitzu tekniko eta juridikoek aldarazpen horri buruzko bidezko txostenak egin zituzten.

Hirigintzako Gerentziak gertatu zuen txosten teknikotik ondoko alderdi hauek azpimarratu ditugu:

- Hirigintzako proposamenaren bideragarritasun ekonomikoa industri birmoldaketari ekiteko gainbalioa sortaraztean datza eta ez horrenbeste plangintzaren berriazko beharrianetan.

- Eraikinen altuerak eta etxadi itxiek edo erdi-itxiek anomaliak eragiten dituzte aldean egon dagoen bilbaduran eta sabai eraikigarri kopururik altuena izatearen beharrian antzematen ahal da.

- Ez dago arazoi objektiborik proposatu den erabilera hori bidezkoetzeko.

- Izatez ez da hiri lurzorua, proposamenean adierazi nahi den bezala, eta baieztapen okerra da esatea horren sailkapenak –hirikoa eta urbanizagarriaren artekoa– ez duela garrantzirik, lurzoruaren jabeak atzeman dezakeen aprobetxamendua hiri lurzoruaren kasuan egongo litzatekeenaren bikoitza edo hirukoitza litzatekeelako. Halaber, baldin eta aldarazpena lurzoruaren sailkapena ukitu gabe onesten bada, aprobetxamenduaren gaindikinen jabea Udala litzateke.

- Zuzkiduretarako eta espazio libreetarako lurzoruaren murrizketak aldearen bizitza kalitatea gutxituko dela esan nahi du eta ez lirateke HAPOn ezarri diren gutxieneko estandarrek beteiko eta murrizketa hori ez dago era egokian bidezkotuta.

- Hektareako egoitzako eraikinen gehieneko mugak gainditzeko proposamenean egin den bidezkoketa barne eraldaketarako benetako eragiketa da –egoera horretan bidezkotuta dagoelako muga horiek gainditzea–. Gerentziaren aburuz ezinezkoa da argudio hori aplikatzea, ez delako hiri lurzorua, burutzapen fasean dagoen lurzoru urbanizagarri programatua baizik.

Beste alde batetik, Korporazioaren Idazkariak egin zituen txostenetatik ondoko alderdi hauek azpimarratu ditugu:

- Lurra ezin da juridikoki hiri lurzorutzat hartu.

- Etxebizitzaren dentsitatearen gehikuntza ezin da bidezkotu hiri birgaikuntza edo barne eraldaketarako balizkoa izatean.

- Ez da bidezkotu jarduketa unitate berriaren mugaketan hainbanaketaren oinarria bete denik.

- Aldarazpenaren interes publikoa, Udalarentzat, ez dago nahiko bidezkotuta; dena dela, jarduketa azaltzeko balio dezaketen gizarte mailako eskakizunak egon daudela onartzen du.

- Bukatzeko hau dio "...egin nahi den aldarazpenak itxuraz ez du sakoneko arrazoi bidezkotzailerik hirigintzari dagokionean".

Udal espedientean 1995eko Nafarroako Gobernuaren Akordioa dago; testu horrek, hitzez hitz, hau dio:

"1.- Iruñeko HAOaren Mendebaldeko indarreko Plan Partzialeko H jarduketa unitatearen unean uneko aldarazpenak eskuratu nahi dituen helburuekin bat gatzela adieraztea; sustatzailea Manufacturas Navarra, SAL da.

2.- Ponsal enpresaren instalazioak Iruñeko Mendebaldeko lurretatik lekualdatzea gizarte-intereserako dela adieraztea, industria hori mantentzeko aurrezko eta nahitaezko urratsa baita.

3.- Akordio honen berri Iruñeko Udalar, Manufacturas Navarra, SAL enpresari eta Lurraldearen Antolamendua eta Ingurugiroa Sailari eta Merkataritza, Turismo eta Lan Sailari jakinaraztea, bidezko ondoreak izan ditzan."

Halaber, Industria Sailburuek Iruñeko Alkateari bidalitako idazkiak daude, non proposatu den aldarazpenarekin bat datozela eta horren tramitazioa ahalik eta arinen ebaztearen beharrezana adierazten baituten.

Udalak aldarazpena onetsi ondoren, Nafarroako Gobernuari igorri zitzaion behin betiko onespeneraren proposamena egiteko. Espediente hau berrikusi ondoren, hertsiki hirigintzako legezkotasuna aztertzen duten zenbait espediente dago. Oro har baieztu egiten dute aldarazpena indarrean dagoen antolamendu juridikoari egokitzen zaiola, baina merkataritzako zentrua instalatzeko eskatu diren agiriak osatu beharko liriteke, "zio burokratikoengatik lurzoru mota aldatzeko bidezkoketa guztiak Memoriatik ezabatu" eta aurkeztu diren agirietan era egokian zehaztu ez diren zehaztapen batzuk sartu –garaje solairuen lerro-kadurei eta fatxaden materialei buruzkoak–.

Azkenean, 1996ko uztailaren 4an, Lurralde Antolamendurako Batzordeak behin betiko onetsi zuen Iruñeko HAOaren unean uneko aldarazpena.

Lurren salmenta

1990eko apirilaren batean Ponsal enpresak kontratu bat sinatu zuen higiezinaren alorreko enpresa batekin lur horien "lurzoruaren birkalifikazioa eta bidezko ekipamenduetarako lizentzia eskuratzeko hala pertsona fisikoekin nola juridikoekin eta erakunde ofizialekin egin behar ziren kudeaketa eta negoziazioak egiteko edo finken merkataritzako destinoa erabakitzeke eskumena duten agintariak ezartzeko..." alegia.

Aurrean adierazi diren kudeaketa horiek egiteagatik enpresak portzentaia bat kobratuko du, aurrez ezarri den eskala bat kontuan hartuta, adierazi diren lur horien desjabetzapenean eskuratuko den etekinaren arabera.

Kontratu horretan, halaber, horren alde orubeen gaineko eroslehentasun eskubidea ezarri zen, baldin eta hirigintzako birkalifikazioa eskuratzen bada.

Espedientean azaltzen den informazioarekin bat, dirudienez Ponsalek erosketan ustez interesatuak zirenei eskaintza publikoa egin zieten, eta gutxieneko prezioa 1.200 milioikoa izan zen. Horri buruz espedientean 1.600 milioi pezetako hiru eskaintzari buruzko idazki bat dago, baina finantzaketa eta ordainketa erak baloratu gabe dituen.

1995eko uztailaren 5ean aurreko enpresak eta Ponsal-Manufacturas Navarra enpresek lurren salerosketarako kontratu pribatua sinatu zuten; testu horretatik ondoko hauek azpimarratu ditugu:

- Salerosketak baldintza bat du, hots, erosleak oso-osorik ondoko beharrezko hauek bete beharko dituela:

a) Karga guztiak kentzea.

b) Instalazio, nabe eta lurraz uztea.

c) Iruñeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren unean uneko aldarazpena behin betiko onestea.

- Hizpatu zen prezioa 1.200.004.000 pezetakoa zen; horren banakapena hau da:

a) 825.000.000 bidezko etxebizitzak eraikitzeke lurrengatik.

b) 375.004.000, merkataritzako azaleragatik.

- Aurrean adierazi den prezioari geroko desjabetzapenean enpresak 375 milioi horietatik eskuratuko lukeen merkataritzako azaleraren gantiki-naren ehuneko 50a batuko zaio.

- Enpresak uko egin zion 1990eko apirilaren kontratuaren arabera zegokion kudeaketagatiko komisioari⁽¹⁾.

Azkenik, adierazi behar da Nafarroako Gobernuak kanpoko adituen eskuetan utzi zuela lur horien balorazioaren azterlana egitearena planteatu zen hirigintzako aldarazpena kontuan hartuta balioa ezartzeko. Txostena 1995eko azarokoa da eta honela bukatzen da: "Ponsalen Iruñeko HAPOaren aldarazpenak ukitu duen lurraren egungo balioa 1.219 milioi eta 1.336 milioi pezeta artekoa da".

Aldarazpen horrek Iruñeko Udalari ekarri dion emaitza (onura edo galera).

Hirigintzako gerentziak gertutu zuen txostena-rekin bat, lurzoruaren sailkapenaren aldarazpenak "baldin eta antolamendua aldatuko balitz, Iruñeko Udalaren ondarearen galera nabarmen ekarriko luke."

Iruzkin hori kontuan hartuta Ganbarak aldarazpen horrek udal ondarean eragin zuen onura edo galeren zenbatespena eskatu zion Iruñeko Udalari, baina ez zuen erantzun egokirik jaso.

Horren guztiaren ondorioz, ezin dugu baloratu aztertu den jarduketa horren ondorioz Iruñeko Udalaren ondarean gehikuntza edo murrizketarik egon den.

3. GEHIGARRIA. COMERCIAL EUROPEA DE PORCELANAS, SAL (COMEPOR) ENPRESARI EMAN ZAIZKION DIRULAGUNTZAK ETA GAINERAKO LAGUNTZAK.

Gehigarri honek, eman diren laguntzen izaerak kontuan hartuta –krisi egoeran dauden enpresak, nabeak eskuratzea eta beste laguntza batzuk–, hiru azpieran skin ditu. Halaber, 4. azpieran skin bat ere aurreikusi da, kasu honetan aurreko laguntza horiengatik Europako Batzordeko Elkarlehiarako Zuzendaritza Nagusiak hasi duen espedienteak eragin dituen arazoei dagokiena.

3.1. LAGUNTZAK KRISIAN DAUDEN ENPRESEI.

Nafarroako Gobernuak, 1994ko uztailaren 26ko Erabakiaren bidez, arestian ere adierazi den bezala, "Porcelanas del Norte, SAL" enpresaren Saneamendu eta Lehengoratze Plana onetsi zuen; plan hori "Comercial Europea de Porcelanas" sozietateak garatu behar zuen.

Prozesua aplikatzeko eta abioan jartzeko, Comepor. SA enpresak laguntzak eskatu eta eskuratu zituen, batez ere "Krisi egoeran dauden enpresen saneamendu eta lehengoratzerako laguntzen emakidak araupetu dituen Foru Legea" eta "Inbertsio eta Enplegurako Finantza Laguntzerkin" bat.

3.1.1. Krisi egoeran dauden enpresen saneamendu eta lehengoratzerako laguntzak.

Arestian aipatu den erabaki horrek, krisi egoeran dauden enpresen saneamendu eta lehengoratzerako laguntzen emakidak araupetu dituen Foru Legearen itzalpean, jarraian adieraziko diren laguntzak eman zituen Plana betearazeko:

- Korrituruk gabeko aurrerakin ordaingarria, 200 milioi pezetakoa alegia; horren itzulketa honela egin behar da:

50 milioi pezeta 1996 urtea bukatu aurretik.

150 milioi pezeta 1997 urtea bukatu aurretik.

- Foru Komunitatearen sorospidetzako abalak, garai egokian zehaztuko diren finantza erakundeen onuran, zertarako-eta guztira gehienez 1.200 milioi pezetakoa izanen den mailegu edo kredituen printzipala bermatzeko; abalok Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Sailak aurrez onetsi beharko dituen baldintzetan hitzartuko dira.

Beste alde batetik, enpresak fabrika berriak atzemango dituen lur eta eraikinen gaineko lehenengo hipoteka eratuko du Nafarroako Foru Komunitatearen alde; arestian aipatu diren abalen eta baita eman den aurrerakinaren berme moduan, hipoteka hori instalazio, makineria eta ekipoetara zabalduko da horiek ezartzen diren unean bertan.

Hipoteka hori eta aipatu diren lur eta eraikinen ordainketa geroratuaren bermea lerrun berekoak izanen dira. Aipatu diren bermeok Nafarroako Gobernuak "Comercial Europea de Porcelana, SA" enpresari higiezina desjabetu ondoren eratu-ko dira.

- Fondo galdurako dirulaguntza, enpresaren-tzat abalatu diren kredituek sortzen dituzten korrituak urtero %5a baino gehiagokoak izan ez daitez-zen; dirulaguntza horri eutsi egingen zaio harik eta aipatu den Sail horrek enpresa lehengoratze-ko benetan beharrezkoa ez dela erabaki arte.

- Lehengoratze eta Saneamendurako Planak irauten duen artean mailegu, hipoteka eta kapital

(1) 1.200 milioiko kopurua gainditzen zuenez, ehuneko 8ko portzentaia ezarri behar zen; beraz, 96.000.320 pezetako komisioa aterako zen.

zabalkuntzak kargatzen dituzten Ondare Eskualdaketen eta Ekintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren 100eko 99ko hobaria.

- Zerga oinarri negatiboak konpentsatzeko aplikagarriak diren epeak, eta baita inbertsioengatiko kenkariengatik aplika daitezkeenak ere, Planaren indarraldian emaitza positiboak dituen lehengo ekitalditik aurrera zenbatuko dira.

Aurrean adierazi diren hobari horien emakida eta gozamererako enpresak eta horren bazkideek ondoko konpromisoak eta baldintzak bete behar dituzte:

- Nafarroako Gobernuak eman dituen aurrera-kin eta dirulaguntzen eta baita abalatu dituen kredituen fondoak eskuratzeko nahitaezkoa da enpresaren ordezkaria-en edo eskudunek ondore horretarako Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Sailak izendatuko duen pertsona onartzea.

- Proiektuak agintzea, obren eta instalazioen kontratazioa, makineriaren eta ekipoen eskuraketa eta baita horien guztien ordainketak egiteko nahitaezkoa izanen da Sail horren adostasuna izatea; adostasun hori horretarako izendatuko den edo diren pertsonen bidez adieraziko da.

- Arestian aipatu den Sail horrek hiru eskuorde izendatuko ditu "Comercial Europea de Porcelanas, SA" sozietatearen eta lehengoratzte planean ezarri den enpresa proiektuaren garapena burutzen denean eratuko diren sozietateen Administrazio Kontseiluan eta horrela izanen da enpresak Nafarroako Gobernuaren laguntzaz gozatzen duen artean edo erakunde horrekiko onetsi den planaren araberrako eskuratutako konpromisoak dituen artean.

Plan hori aldaraziko duen edota sozietateraren bizitzan eragin handiak izanen duen edozein erabaki hartzeko nahitaezkoa izanen da kontseilukide horien aldeko botoa.

- Enpresak fabrika berriaren eraikintzan eta horren ekipamenduan berrinbertitu beharko du egun Barañain Etorbideko fabrikaren egoitza diren orubeen salmentagatik eskuratuko duen prezio osoa.

- Bideragarritasun planean ezarri dena betez, Porcelanas del Norte, SAL enpresaren egungo bazkideek guztira 360 milioi pezeta ekarri beharko dituzte 1995 urtean lan-sozietate anonimo berriaren kapitalaren ekarpenen kontzeptupean.

- Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Sailak, aurrean adierazi diren konpromiso eta betebeharrak era egokian betetzen direla bermatzeko, enpresa eta bazkideei hartu behar dituzten eraba-

kien eta egin behar dituzten ekintza eta negozioen ildoan ezarriko dizkie. Aurreko xedapenean adierazi diren konpromiso eta betebeharrak ez betetzea, edo, oro har, Saneamendu eta Lehengoratzte Planak enpresa eta bazkideentzat eta baita "Porcelanas del Norte, SAL" enpresarentzat eta horren bazkideentzat ezarri dituenak ez betetzeak Nafarroako Gobernuak, hala osorik nola era partzialean, eman diren laguntza eta onurak etetea ekar dezake, beti ere Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Sailak proposamena egin ondoren.

Abuztuaren 9ko 391/1994. zenbakiko Ebazpenaren bidez, arestian aipatu diren idaztietan ezarri dena betetzeko Industria Sailaren eskuordea izanen den teknikaria izendatu zen; teknikari honek Comepor-en fondoei buruzko xedapen guztietan izanen du eskumena.

Izendapen hori 1997ko urtarrilera arte dago indarrean, data horretan, Industriako Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenaren bidez aurreko izendapena indarririk gabe utzi zelako, horren beharrezana eskatzen zuten fondo guztiak betearazita zeudelako.

200 milioi pezetako aurrerakin ordaingarriaren abonamendua abuztuaren 23ko 436/1994 Ebazpenaren bidez onetsi zen; eragiketa hori ondore horretarako ireki zen bankuko kontu batean sarerra eginez burutu zen eta horren ordainketa, hasieran behintzat, aurrean adierazi diren baldintzekin bat eginen litzateke.

Dena dela, 1996ko irailean egin zen Bideragarritasun Planaren berrikuspenean eta gero egin zen eguneratzearen ondorioz, enpresak aurreko aurrerakina ezarritako epeetan itzultzea ezinezkoa zitzaiola jakinarazi zuen, diruzaintzako egoera kritikoa zelako eta horregatik ezinezkoa zelako konpromiso hori 2004a aurretik betetzea.

Horregatik, bada, Nafarroako Gobernuak, 1997ko urtarrilaren 13an egin zuen bileran, 1994ko uztailaren 26ko Erabakia aldatzea erabaki zuen eta 1996 eta 1997rako itzultzea aurreikusitako ziren muntak 2004 eta 2005 urteetan itzultzea ezarri zuen, ondoko era honetan: 50 milioi pezeta 2004 urtea bukatu aurretik eta 150 milioi pezeta 2005 urtea bukatu aurretik, hau da:

Itzulketa	1994ko uztailaren 26ko Erabakia	1997ko urtarrilaren 13ko Erabakia
50 milioi pezeta	1996	2004
150 milioi pezeta	1997	2005

Bermeari dagokionean, Comepor-ek, 1994ko abenduaren 2ko eskritura publikoaren bidez, Foru Komunitatearen aldeko hipoteka eratu zuen Cor-

dovillako jurisdikziopeko finka publiko baten gainean; horren azalera, guztira, hogeita mila eta berrogeita zortzi metro karratukoa zen; finkak zenbait eraikin ditu.

Finka hori Nafarroako Foru Komunitateari erosi zitzaion. Guztira 564 milioikoa zen ordainketa geroratuaren bidez. Eragiketa horren xehetasunak 3.2. atalean ikus daitezke.

Hipoteka hori ondoko hauek bermatzeko zen:

- Finkaren ordainketaren gerorapena, 564 milioikoa.
- 200 milioiko aurrerakin ordaingarria.
- Nafarroako Foru Komunitateak maileguan emandako abalak, gehienez 1.200 milioikoak.

Beste alde batetik, bigarren hizpaketan, berriaz hizpatu zen hipoteka finka horretan ezarriko ziren instalazio, makineria eta ekipoetara zabalduko zela. Beraz, fabrika berrian inbertsioak egin

ahala hipoteka hau eratzen duten ondasunen balioa bermatzeko zenbatekoak estaltzeko nahikoa izanen dela uste da.

Une honetan ez dago inbertsioak sasoiz egin diren jakiteko eta horien muntari buruzko informazioz une honetatik aurrera berme moduan erabil daitezkeen ondasunen balioak bermatu diren muntak estaltzen duten ala ez esateko.

Nafarroako Gobernuak, 1994ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, Comepor-ek 1994ko uztailaren 26ko Erabakiaren bidez lortu zituen abalen berme bezala Nafarroako Foru Komunitatearen alde eman zuen hipotekaren aldi bakarreko eraketa onartu zuen.

Abalak, guztira 1.200 milioi pezetakoak, 1995eko urtarrilaren 11 eta apirilaren 21eko Foru Aginduen bidez eman ziren. Abalatu ziren eragiketek, orokorrean, 9 urteko iraupena dute. Eman diren abalen ezaugarriak, oro har, ondoko hauek dira:

Foru Agindua	Izakia	Zenbatekoa	Epea	Geroaldia	Amortizatzekeo epea
1995-1-11	Nafarroako Aurrezki Kutxa	150.000.000	9 urte	3 urte	1999-2004
1995-1-20	Banco Bilbao-Vizcaya	100.000.000	2003-12-31ra arte	96-12-31ra arte	1996-2003
1995-1-30	Iruñeko Aurrezki Kutxa	200.000.000	2003-12-31ra arte	98-12-31ra arte	1998-2003
1995-2-17	Banco Popular Español,SA	100.000.000	9 urte	3 urte	1999-2004
1995-2-17	Banco Santander SA	300.000.000	9 urte	3 urte	1999-2004
1995-2-22	Caja Rural de Navarra	100.000.000	2004-2-28ra arte	3 urte	1999-2004
1995-3-29	Nafarroako Aurrezki Kutxa	150.000.000	9 urte	3 urte	1999-2004
1995-4-21	Banco de Vasconia SA	100.000.000	9 urte	3 urte	1999-2004

Comepor-ek Foru Komunitateak onetsi zuen arriskuaren kontraprestazioagatik ordaindu behar zuen komisioa %0,10ekoa zen urtero, normalean Gobernuak %1 duenean.

Fondo galdurako dirulaguntza, enpresarentzat abalatu diren kredituek sortzen dituzten korrituak urtero %5a baino gehiagokoak izan ez daitezen, 31.533.240 pezetakoa da 1995ean eta 44.813.467 pezetakoa 1996an, beti ere Kudeaketa Ekonomiko-Finantzararioaren Sistematik eskuratu ditugun datuen arabera.

Hurrengo urteetarako hasieran aurreikusi diren korrituengatik hobariak, milioietan, 66,8koa da 1997an; 66,3koa da 1998an; 55,3koa da 1999an; 45ekoa da 2000n eta 33,9koa da 2001ean. Kontuan hartu behar da korrituek beheranzko bidea hartu zutela eta egun ere horrela jarraitzen dutela eta 1996an dirulaguntzen xedea den zenbatekoa 70,9 milioikoa izan bazen ere benetan ordaindu zena 44,8 milioi pezeta izan zirela.

Ekonomia eta Ogasuna Sailak, Ganbara honen eskabideari erantzunez, jakinarazi zuen Comepor enpresak 1993ko irailaren 9tik 1996ko azaroaren 16ra arte eman zituen zortzi eskrituretatik baten ere ez zuela 1994ko uztailaren 26ko Erabakian ezarri den ehuneko 99ko hobarien aplikaziorik esakatu.

Enpresaren emaitza ekonomikoek ez dute egunera arte aukerarik eman zerga oinarri negatiboak konpentsatzeko.

Kapitalaren gehikuntza 1996ko Auditoretzaren Txostenarekin erkatzearen zain dago.

3.1.2. Inbertsio eta enplegurako finantza laguntzak.

1995eko azaroaren 14ko Foru Aginduaren bidez, Lan-Sozietate Anonimo bihurtzeko transformazio fasean zegoen Comepor, SA enpresa behinbetiko sartu zen mota horretako laguntzetan; 1996an ordaindu behar zituen ondoko laguntza hauek eman zitzaizkion:

- 570 milioi pezetako fondo galdurako dirulaguntza, proiektatu den ibilgetu materialaren %20a –2.850 pezeta, batez ere makinerian–.

- Gehienez 100 milioi pezetako fondo galdurako dirulaguntza, enplegua sortzeagatik, 500.000 pezeta langile finko bakoitzagatik eta 200 lanpostu finko sortu arte.

Hasieran –1995eko urriaren 16ko Foru Agindua– inbertsiorako laguntzak ematea baino ez zen aurreikusi, jardueraren zabalkuntzatzat jo zelako. Dena dela, 1995eko azaroaren 13ko Foru Aginduaren bidez, aurreko Foru Agindua indargabetu eta esan zen foru agindu horretan inbertsioen proiektua sorkuntza berrikoa zela kontuan hartu gabe laguntza batzuk eman zirela eta, beraz, ez zen aurreikusi izaera finkoa duten lanpostuak sortzea.

1996ko maiatzaren 22ko Foru Aginduaren bidez, eta inbertsioen proiektua buruturik zegoela frogatu ondoren, inbertsioagatik dirulaguntzaren ordainketa, 570 milioikoa, 1996an eginen zela ezarri zen, Lan-Sozietate Anonimoa 360 milioi pezetako kapital jarria eta harpidetuarekin eratuta zegoela bidezkotu ondoren alegia, eta, halaber, enpresaren bideragarritasun planean ezarrita zeuden bideak betetzeko ezarri zen.

Arestian aipatu den dirulaguntzaren abonamenduari ekiteko behin betiko baimena 1996ko abenduaren 10eko Foru Aginduaren bidez gauzatu zen, 2.866 pezetako inbertsioa benetan egin zela frogatu ondoren.

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Sailburuak, 1996ko ekainaren 28ko Foru Aginduaren bidez, "Comercial Europea de Porcelanas, SAL" enpresari subrogatu zizkion "Comercial Europea de Porcelanas, SA" enpresari eman zitzaizkion onurak. Halaber, 1997ra geroratu zen enpresak kontratatzen zuen langile finko bakoitzeko 500.000 pezetako dirulaguntza, gehienez 100 milioi pezeta osatu arte, eta arestian adierazi den Foru Aginduaren bidez eman zena; horren abonamendua, hasieran, 1996 urterako ezarri zen.

Halaber, aipatu den Foru Agindu horretan maiatza eta ekainaren hasieraren artean 160 langile finko kontratatzeko dirulaguntza -80 milioi pezeta-, bi fasetan ordainduko zen, beti ere kontratazio horien daten arabera eta horren bidezko frogaketa egin ondoren, hau da, 40 milioi 1997ko lehenengo sei hilabetean eta beste 40 milioi urte horren uztaila eta abuztua artean. Dirulaguntzaren gainerako zenbatekoa -20 milioira arte- gainerako langileen kontratazio daten arabera abonatu da.

Horrela, bada, 1997ko apirilean, enpresari lehen ordainketari zegokion 41.250.000 pezetako dirulaguntza abonatu zitzaion -250.000 pezeta- 165 langile finko kontratatzeagatik.

3.2. NABEEN EROSKETA.

Uztailaren 4ko 11/1994 Foru Legeak, saneamendu eta lehengoratzeko planaren abioan jartzea eta burutzapenaren barruan, higiezin desjabetzapena egitea hizpatu zuen; hasierako azalera, gutxi gora-behera, 20.000 m²-koa zen eta jabea Foru Komunitatea.

Horrela, Nafarroako Gobernuak, "Porcelanas del Norte, SAL" enpresak formulatu zuen eskabidea aztertu ondoren eta gizarte interes eta errendagarritasunaren alorreko beste arrazoi batzuk ere neurtuz, baita industri politikaren alorreko irizpideak ere, 1994ko azaroaren 14an, Iruñea-Huesca errepidearen 3 km-an dauden Nafarroako Foru Komunitatearen jabetzako higiezin batzuk alienagarriak zirela adierazi zuen (antzinako Super Ser fabrika) eta horien salmenta bideratu zuen, desjabetzapen zuzenaren bidez alegia; salmenta hori "Porcelanas del Norte, SAL" enpresaren Saneamendu eta Lehengoratze Plana garatuko duen enpresari eginen zaio, beti ere ondoko baldintza hauetan:

- Salmentaren prezioa, uztailaren 4ko 11/1994ko Foru Legeak ezarri duenarekin bat, 484.800.000 pezetakoa da.

- Adierazi den prezioaren abonamendua gehienez 7 urtekotan eginen da; horietatik lehenengo biak ezaldikoak izanen dira eta printzipala 5 urteko berdinetan amortizatuko da; kopuru geroratuak %5eko korritua sortuko dute urtero, ondoko era honetan:

	Printzipala	Korrituak	Guztira
1. urtekoa	-	24.240.000	24.240.000
2. urtekoa	-	24.240.000	24.240.000
3. urtekoa	96.960.000	24.240.000	121.200.000
4. urtekoa	96.960.000	19.392.000	116.352.000
5. urtekoa	96.960.000	14.544.000	111.504.000
6. urtekoa	96.960.000	9.696.000	106.656.000
7. urtekoa	96.960.000	4.848.000	101.808.000
Guztira	484.800.000	121.200.000	606.000.000

- Desjabetzapenaren prezioen bermeak uztailaren 4ko 11/1994ko Foru Legearen 3. artikuluan ezarri zirenak izanen dira. Hau da: "higiezin horien gaineko hipoteka, ezarriko diren instalazio eta makineriara hedatuko dena".

- Sozietate erosleak honako eragiketa honen ondorioz eskuratuko dituen higiezinak Saneamendu eta Lehengoratzeko Plana abioan jartzeko eta burutzeko erabiliko ditu.

Aurreko Erabakia hartu aurretik, Nafarroako Gobernuaren Ondare Zerbitzuak eragiketari buruzko txostena gertutu zuen; testu horretatik ondoko hauek azpimarratu ditugu:

- *Nabeak 24.000 pezeta/m²-ko prezioan eskuratuko dira; kopuru hori 30.000 pezeta/m² zenbatesi den prezioari inbertsioagatik kontzeptuan %20 kentzearen emaitza da.*

Inbertsioagatik %20ko dirulaguntza baldin eta desjabetzapena Lan-Sozietate Anonimo batentzat bada eginen da, baina ez dakigu bidezko eskabidea egin duten eta Industria Sailaren espedientearen tramitazioari ekin ote zaion.

Ondare Zerbitzuak ez du adierazi den prezio hori egokia den ala ez aztertu, prezio hori arestian aipatu den Foru Legeak ezarri baitzuen.

- *Azalerari dagokionean, Legeak eta Planak 20.000 m²-ko industri nabeak erostea aurreikusi zuten. Geroago aztertuko den bezala, dena den, enpresak fabrika berria egiteko lur gehiago behar zuela adierazi zuen.*

- *Nabeen prezioaren ordainketa, 480 milioi pezeta, 7 urtekotan ezarri da; horietatik lehenengo*

biak ezaldikoak izanen dira; kopuru geroratupei %5eko korritua aplikatuko zaie urtero. Berme bezala fabrika berriaren gaineko lehenengo hipoteka hartuko da.

Aurreko espedientean dagoen dokumentazioarekin bat, ez dakigu zen izan den 30.000 pezeta/m² prezioa ezartzeko irizpidea. Halaber, Industria Sailaren txostenean ez da azaltzen nola ezarri den prezio hori; gainera, prezioari zuzenean aplikatzen zaio %20ko kenketa inbertsioagatiko dirulaguntzaren kontzeptuan.

Beraz, gure ustez, lurren kostu erreala 606 milioi ingurukoa izaten ahal da; munta horretatik inbertsioagatiko dirulaguntzen aplikazioan egin den 121 milioiko dirulaguntza inplizittoa kendu beharko litzateke. Horrela:

Lurren prezioa (20.000 m ² x 30.000 pzta/m ²)	606.000.000
Inbertsioa laguntzeko dirulaguntza (Salmenta prezioaren %20a)	(121.200.000)
Guztira, Comepor-ek ordaindu behar duena	484.800.000 (1)

(1) Ordainketa gerotatuagatiko korrituak sartu gabe.

Azkenik, Ondareak eman digun informazioaren arabera, Comepor ez diren beste enpresa batzuei desjabetutako antzinako Super Ser fabrikaren nabeen eta lurren salmenta prezioak, funtsean, ondoko hauek izan zirela adieraztea:

Nabeak	40.000 Pzta./ m ²
Lur berdinduak	10.000 Pzta./ m ²
Lur berdindu gabeak	1.000 Pzta./ m ²

Nabeen kasuan prezio horiek Comepor-i aplikatu zaiona baino nabarmen altuagoak dira (40.000 alde batetik eta 24.000 pezeta/m² bestetik).

Beste alde batetik, eta Ondare Zerbitzuaren txostenean ezarri den bezala, aipatu egiten da Comepor enpresak hasieran adierazi zena baino azalera gehiago nahi zuela.

Eskabide hori onetsi ondoren, 26/1994 Foru Legearen xedapen gehigarrietatik hamahirugarrenaren bidez, uztailaren 4ko 11/1994 Foru Legearen lehenengo artikulua idazkuntza aldarazi zen eta eskabide berriarekin bat datorren higieziaren desjabetzapena legezkotzat jo, baita kostua eta ordaintzeko baldintzei buruzkoak ere. Orokorrean, 22.450 m²-ko azalera zenbatetsiaren salmenta baimendu zen, gutxi gora-behera 538.800.000 pezetako prezioa, -hau da, 24.000 pezeta/m²- eta ordaintzeko erak eta baldintzak mantendu dira.

Nafarroako Gobernuak, 1996ko apirilaren 29an, Comepor-i 2.332. m²-ko nabeen eta bulegoen osagarriak 24.000 pezeta/m²-ko prezioan saltzeko prozedura onetsi zuen; eragiketaren munta osoa 55.968.000 pezetakoa zen.

Beste alde batetik, Erabaki honi itsatsi zaion txostenean ondoko lerrokada hau azpimarratu behar da: "Halaber, azpimarratu behar da 11/1994 Legeak ez zuela ezarri nabeen desjabetzapenarekin batera nahitaezkoa zela erosleari sarbide eta aparkaleku nahiko zuzkitu behar zitzaizkiola, horiek izan ezean ezinezkoa baita nabeak erabiltzea eta, ondorioz, lurren bi lurzati alienagarritzat jo beharko lirateke, bat nabeen aurrean dagoena eta 2.522 m² dituen era bestea hegoaldean dagoena eta 10.709 m²-koa; horien salmenta kontratazio zuzena eta merkatuko prezioan eginen litzateke."

Horren guztiaren ondorioz 2.522 m²-ko sarbideak, 5.800 pezeta/m²-ra -55.968.000 pezeta- eta 10.709 m²-ko aparkalekuak, 800 pezeta/m²-ra -8.567.200 pezeta- saldu ziren. Nabeen kasuan egin zen bezala, ez dira ezagutzen aurreko aleko prezioak ezartzeko erabili diren irizpideak.

Orokorrean, desjabetzapen osagarria, guztira, 99 milioikoa izan zen; horiek ordaintzeko formula -hasieran aurreikusi zenaren modukoa- ondokoa zen:

	Printzipala	Korrituak	Guztira
1. urtekoa	-	3.958.140	3.958.140
2. urtekoa	-	3.958.140	3.958.140
3. urtekoa	15.832.560	3.958.140	19.790.700
4. urtekoa	15.832.560	3.166.512	18.999.071
5. urtekoa	15.832.560	2.374.884	18.207.444
6. urtekoa	15.832.560	1.583.256	17.415.816
7. urtekoa	15.832.560	791.628	16.624.188
Guztira	79.162.800	19.790.700	98.953.500

Laburbilduz, Comepor-i saldu zitzaizkion sailak, m²-ko aplikatu ziren prezioak, eman zen dirulaguntza eta ordaindu beharreko prezioa, sarbide eta aparkalekuetan nabeetan aplikatu den dirulaguntza bera eman zaiela kontuan harturik, ondoko hauek dira:

	Saldu den saila	Salmenta prezioa, m	Dirulaguntza, m ²	Ordaindu behar den prezioa, m ²
Nabeak eta bulegoak	22.532	30.000	6.000	24.000
Sarbideak	2.522	7.250	1.450	5.800
Aparkalekuak	10.709	1.000	200	800

Comepor-i aplikatu zitzaizkion m²-ko prezioak eta antzinako Super Ser-en saldu ziren gainerako sailak erkatzen baditugu, emaitza hau da:

	Comepor		Beste enpre- sa batzuk	
	Salmenta prezioa	Ordaindu zen Dirulaguntza prezioa		
Nabeak eta bulegoak	30.000	6.000	24.000	40.000
Sarbideak (a)	7.250	1.450	5.800	10.000
Aparkalekuak (b)	1.000	200	800	1.000

(a) Lur berdindua eta gainjantzia; indusketa lanak baino ez dituen lurrekin erkatzen da.

(b) Industu gabe dagoen sailarekin erkatzen da.

Horren arabera, erkaketaren ondorioz eskuraketa honekin COMEPORek ustez lortu dituen onurak hauek izan daitezke:

	Comepor			Gainerako enpresak	
	Saldu den azalera	Ordaindu zen prezioa	Dirulaguntza		Preziorik baxuena
Nabeak eta bulegoak	22.532	540.768.000	135.192.000	225.320.000	901.280.000
Sarbideak	2.522	14.627.600	3.656.900	6.935.500	25.220.000
Aparkalekuak	10.709	8.567.200	2.141.800	0	10.709.000
Guztira	35.763	563.962.800	140.990.700	232.255.500	937.209.000

Ondorioz, eskuratu den informazioaren arabera, badirudi COMEPORek antzinako Super Ser fabrikaren lur eta higiezinengatik eskuratu zuen prezioarekin, gainerako eskuratzailerekin erkatuta, 232.255.500 pezeta aurreztu zituela. Halaber, nolabait esateko "inplizitua" edo berezko 140.990.700 pezetako dirulaguntza aplikatu zaio.

Horrek guztiak Comepor enpresak 563.962.800 pezetako prezioa ordaintzea ekarri zuen, beste prezioak aplikatuz gero 937.209.000 pezeta ordaindu beharrean alegia, inbertsio eta enpleguagatiko dirulaguntzen eskuraketa kudeatzea gora-behera.

Gainera, zenbateko horren ordainketa 7 urtekotan geroratu zen –lehenbiziko biak kapital ezaldian–, ehuneko 5eko korrituan alegia.

3.3. BESTE LAGUNTZA BATZUK.

3.3.1. Sodenaren 1.000 milioiko abala.

Krisi egoeran dauden enpresa eta inbertsioengatik eskuratu diren laguntzak gora-behera, Nafarroako Gobernuak, 1995eko uztailaren 3an, SODENAK Comepor-en aldeko 1.000 milioi pezetako abala ematea baimendu zuen, zertarako-eta enpresa horrek Mendebaldean jabetzan zituen higiezinak desjabetu arte era iragankorrean finan-

tzatzeko munta horregatik Caja de Ahorros de Navarra erakundeak eman zion kreditu bat bermatzeko, hirigintzako aldarazpena atzeratu egin zelako.

Aipatu den erabaki horren 2. idazatian ondoko hau ezarri zen: "Nafarroako Gobernuak, hala denean, SODENA enpresari bere ondarean izan ditzakeen kalteak ordaintzeko bidezko neurriak hartuko ditu, baldin eta Sodenak COMEPOR. SA enpresaren alde Caja de Ahorros de Navarra erakundearen maileguan jarri duen abala beteraraziko balitz." Horrek guztiak argi adierazten du Sodena sozietate publikoa bitarteko hutsa izan zela, eragiketa horretan benetan erantzukizuna zuena Nafarroako Gobernu baitzen.

Eskura daukagun informazioaren arabera, eragiketa horren iraupenaldia sei hilekoa da eta, beharrezkoa balitz, beste seiko luzapena egiten ahal da, mailegu-zubi bezala harik eta Comepor-ek Ponsalen lurak saltzeko beharrezko kudeaketak egin arte. Salmentaren zenbatekoa berehala Sodenak abalatu zuen kreditu-linea hori kitatzeko erabili behar zen; kreditua hirigintzako birkalifikazioaren prozesua bukatu arte eta lurren salmenta eta kobrantza eskuratu arte diruzaintzako mentak estaltzeko zen.

Abal hori, Ganbara honek egin duen zirkularra-
ren ondorioz SODENAK eman duen informazioaren arabera, 1995eko uztailaren 5ean eman zen eta kitatzeko data 1997ko urtarrilaren 14a izan zen. Abal horren funtsezko ezaugarriak hauek izan ziren:

- Zenbatekoa: 1.000 milioi pezeta.
- Eragiketaren baldintzak: %2ko urteko komisia; gastu guztiak, eskriturak, zergak, etab., abaljasotzailearen pentzutan ziren.
- Bermeak: lehenengo Ponsal fabrika kokatuta dagoen lurren gaineko hipoteka.

3.3.2. Nafincoren 750 milioiko mailegua.

1996ko maiatzean egin zen enpresaren Bidegarritasun Planaren berrikuspenaren barruan eta eragiketa-errealitate berriaren aplikazioan eta bitartekoen sarreran urte bateko atzerakuntza egotearen ondorioz, Nafinco enpresa publikoaren jarduketara presazko finantza neurria izan zen eta bi alderdi estali zituen:

a) Ponsal-Manufacturas Navarra enpresari 6 hil eta 200 milioiko abala ematea Gizarte Segurantzaren aldeko zorra bermatzeko. Abal hori 1997ko urtarrilean kitatu zen, zorraren zati bat Nafincok eman zuen maileguaren zati batekin amortizatuz.

b) Comepor-i 750 milioi pezetako mailegua ematea, hala zuzenean nola Nafarroako Gobernuaren bidezko abal eta korrituen hobariarekin.

1996ko irailaren 12an, Nafinco-ren Administrazio Kontseiluaren Batzorde Betearazleak, Nafarroako Gobernuak 1996ko ekainaren 3an hartu zuen erabakian ezarri zena betez eta delako Erabaki horren txostenean ezarri ziren neurriekin bat, Comepor-i mailegua ematea erabaki zuen; baldintzak ondoko hauek izan ziren:

- Zenbatekoa: Gehieneko muga, 750 milioi pezetakoa.

- Iraupena: 8 urte, 3 urteko ezaldia.

- Amortizazioa:

2000 urtea	50.000.000 Pzta.
2001 urtea	100.000.000 Pzta.
2002 urtea	125.000.000 Pzta.
2003 urtea	225.000.000 Pzta.
2004 urtea	250.000.000 Pzta.

- Korritua: Aldakorra, Mibor urte batera motakoa. Mailegariak sortuko diren korrituak eraginkor bihurtzeko iragan diren urtekoetan.

- Bermea: Bahitura, mailegariaren sozietatearen kapitalean dauden 453.521 akzio guzti-guztien jabetza lekualdatuz.

- Destinoa: Bideragarritasun Planaren finantzaketa eta ordainketen etendurarako hitzarmenaren bidez Gizarte Segurantzarekiko 200 milioiko zorra kitatzea.

Mailegu hau ondoko emate hauetan taxutu zen:

1. ematea, 96ko urria	250 milioi
2. ematea, 96ko azaroa	175 milioi
3. ematea, 96ko abendua	125 milioi
4. ematea, 97ko urtarrila	200 milioi

Mailegu hori Nafarroako Parlamentuak 1996ko azaroaren 14ko bileran onetsi zuen 3.000 milioiko kredituaren osagarrian dago sartuta –20/1996 Foru Legea–, mailegua Nafinco enpresarentzat zen eta helburua enpresa batzuen bideragarritasun planen ondorio ziren beharrezko finantzarioei aurre egitea zen, horien artean Comepor.

3.3.3. Beste dirulaguntza batzuk.

Comepor enpresak, halaber, Nafarroako Gobernuak duen kontabilitateko informazioaren arabera, ondoko dirulaguntza hauek jaso ditu:

- 3.495.350 pezetako dirulaguntza, lehiakortasuna hobetzeko; dirulaguntza hori 1995eko aurrekontuaren pentzutari egin zen.

- 1.211.250 pezetako dirulaguntza, prestakuntza eta profesionalen erreziklapenerako; 1997an eman zitzaion.

3.4. EUROPAKO BATZORDEKO ELKARLEHIARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN JARDUKETA.

1995eko urtarrilean, Europako Batzordeko Elkarlehiarako Zuzendaritza Nagusiak, portzelanaren alorreko enpresa batek jarri zuen salaketaren ildotik, informazioa eskatu zion Nafarroako Gobernuari Ponsal enpresari eman zizkion laguntzei buruz. Idazki horren edukia kontuan hartuta antzematen ahal da batez ere Comepor enpresari buruz ari direla, berariaz hau diotelako:

“– Ponsalen etorkizuneko instalazioen kostu osoaren ehuneko 20a baino gehiagoko dirulaguntza, gero Nafarroako Gobernuak horri 600 milioitan salduko diona. Ponsalek Gobernuari 480 milioi baino ez dizkio ordainduko, zazpi urteko epean eta biko ezaldiarekin, urteko ehuneko 5eko korrituarekin.

– Makineriaren alorreko inbertsioagatikoko ehuneko 20ko dirulaguntza.

– 1.200 milioiko kreditu batean zenbait punturen dirulaguntza, baita kreditu horretarako abal bat ere.

Enpresak dituen zorren barkamen partziala, hau da, 3.100 milioitik 600 milioira eta gainerako 600 milioiak ordaintzeko aldeko baldintzak ematea.”

Azkenean, informazio osagarria eta argigarria eskatu zuten aipatu diren laguntza horiei buruz.

Nafarroako Gobernuaren eta Europako Batzordearen arteko idazki eta erantzuneko idazkietan –1995eko uztailetik 1996ko uztailera arte– zenbait gauza argitu zen, hala nola, laguntzen erakunde jasotzailearen sozietatearen izena eta horien burutzapen maila.

Dena dela, eta igorri ziren agiriak gora-behera, 1997ko maiatzean Europako Batzordeak Eeren Hitzarmenaren 93. artikuluan 2. idazkian ezarri den prozedura irekitzea erabaki zuen Ponsal/Comepor enpresari emandako laguntzei dagokienean, zertarako-eta Europako legeriaren arabera horiek legezkoak diren egiaztatzeko.

Halaber, ondoko alderdi hauek azpimarratu behar dira:

“Batzordeak, EEren Hitzarmenaren 93. artikularen 3. idazatian ezarri den etendura eraginari buruz, azpimarratu nahi du legearen aurka jaso diren laguntza guztiak, hau da, aurrez jakinarazpena egin gabe edo Batzordearen behin betiko erabakia itxaron gabe... gerta daiteke onuradunak itzuli beharra izatea, ordainketa egin den egunetik sortu diren korrituak eta guzti, eta hori data horretan laguntza araubideen dirulaguntzaren baliokide garbia kalkulatzeko data horretan erabili zen erreferentziako korritu motarekin.

Batzordeak agindeia egiten die agintariei Ponsal/Comepor enpresari laguntza gehiago eman ez diezaioten eta ahalik eta arinen laguntzen onura-

dunari prozedura hasi dela jakin diezaion eta, halaber, era desegokian jaso duten laguntza itzuli beharko dutela.”

Idazkiaren amaieran Gobernuari laguntza eta berme horiei buruzko iradokizunak eta beste edozein informazio bidaltzeko eskatzen dio. Igorketa hori egiteko hil bateko epea eman dio, eta, beraz, artean indarrean dago Txosten hau idatzi den unean.

Iruñean, 1997ko urriaren 28an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

1 ERANSKINA. GERTAKIZUN GARRANTZITSUENEN ZERRENDA KRONOLOGIKOA**PONSAL**

1979-otsaila-15: Ponsal enpresari 30 milioiko dirulaguntza eta 30.219.477 pezetako gerorapena emateko Erabakia.

1981-abendua-18: P.I.A.C. dirulaguntza, 7.413.764 pezetakoa.

1987-ekaina-12: Ponsalen Saneamendu eta Lehengoratze Plana onetsi zuen Erabakia; dirulaguntza 51 milioi pezetakoa izen zen eta gerorapena 401.476.834 pezetakoa.

1987-ekaina-9: Foru Agindua, Inbertsio eta Enplegurako Finantza Laguntzen barrukoa. 33.286.721 pezeta ordaindu zitzaizkion 87-12-22ko Ebazpenaren bidez.

1987-iraila-3: Foru Agindua, Ponsalen zabal-kuntza Inbertsio eta Enplegurako Finantza Laguntzen barruan sartzeko. Dirulaguntza 85.459.600 pezetakoa izan zen eta 1988-12-26ko Ebazpenaren bidez eman zitzaion.

1995-otsaila-20: Izena aldatu eta 'MANUFACTURAS NAVARRA, SAL' bihurtu zen

1996-apirila-3: Kontratuak baimentzeko eskabidea aurkeztu zuen

1996-apirila-24: Eskabide hori baimendu zen.

1996-maiatza-31: Iruñeko Lehen Auzialdiko 7. zenbakiko Epaitegiak aintzat hartu zuen Manufacturas Navarra, SAL enpresaren ordainketen etendura egoeraren adierazpena

1996-uztaila-2: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia eta Manufacturas Navarra, SAL enpresaren arteko akordioa.

1996-uztaila-5: Lurren salmentarako aurreakordioa.

1996-iraila-9: Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 'Manufacturas Navarra, SAL' enpresak Nafarroako Ogasun Publikoarekin dituen zorren ordainketarako gertutu zuen hitzarmen bereziaren proiektuaren edukiaren berri emanez. Hitzarmena 1996-9-16koa zen.

1996-iraila-24: Iruñeko Lehen Auzialdiko 7. zenbakiko Epaitegiak Manufacturas Navarra, SAL enpresa legezko ordainketen etendura egoera eta behin betiko kaudimengabezia zegoela adierazi zuen.

1996-azaroa: PONSALen lurren behin betiko salmenta.

COMEPOR

1993-iraila-9: 'COMEPOR, SA' eratu zen.

1994-uztaila-4: 11/1994 Foru Legea, antzinako Safel fabrikaren nabeen 20.000 m²-ak saltzea erabaki zuena; prezioa 480 milioi pezetakoa izan zen; halaber, 1.200 milioi pezetako abalak emateko baimena eman zuen.

1994-uztaila-26: PONSALen Saneamendu eta Lehengoratze Plana onetsi zuen, COMEPOR, SA enpresak garatzeko alegia; Krisi Egoeran dauden Enpresetarako laguntza hauek erabili ziren:

- Korriturik gabeko aurrerakin ordaingarria, 200 milioi pezetakoa, 1996 (50 MM) eta 1997an (150 MM) itzuli behar zen.

- 1.200 milioi pezetako abalak.

- Fondo galdurako dirulaguntza, korrituak ezin dira %5etik gorakoak izan.

- %99ko hobariak eta AJDn.

- Eraitza positiboak dituen lehenengo ekitalditik aurrerako zerga oinarri negatiboen konpentsazioa.

1994-azaroa-2: Gizarte Ituna Plana sendotzeko eta 1995,1996 eta 1997 urteetako konpromisoak.

1995-ekaina-29: SODENAK 1.000 milioi pezetako abala eman zion, C.A.N.-en aurrean, kreditu bat bermatzeko.

1995-uztaila-3: Nafarroako Gobernuaren Erabakia, SODENA,SARi baimena eman zion COMEPOR, SARi abala emateko. Halaber, hala denean, neurri egokiak hartu zituen maileguan eman zen abal hori betearaziz gero SODENAREN ondarean kalterik ez gertatzeko.

1995-azaroa-14 : COMEPOR, SA-ren proiektua Inbertsio eta Enplegurako Laguntzen barruan sartu zen; ondoko ezaugarriak zituen:

- Fondo galdurako dirulaguntza, 570 milioi pezetakoa, proiektatu zen ibilgetu materialaren %20aren baliokidea.

- Fondo galdurako dirulaguntza, 100 milioi pezetakoa, enplegua sortzeko (500.000 pezeta. langile finko bakoitzeko).

1996-otsaila-28: Planaren egoera aztertze bilerak.

PONSAL

1996-abendua-18: Iruñeko Lehen Auzialdiko 7. zenbakiko Epaitegiak proposatu zen hitzarmena onetsi zuen; aurrez hartzekodunek ere onetsita zegoena alegia.

COMEPOR

1996-maiatza-13: Txosten Ekonomiko-Finanzarioa, orduko krisi larriari irtenbideak aurkitzeko.

1996-maiatza-14: 'COMEPOR' enpresa L.SA egin zen.

1996-maiatza-22: Inbertsioen proiektua burutu-tzat adierazi zen (2.866 milioi pezeta), inbertsioa eta enplegua finantza laguntzen barruan alegia.

1996-maiatza: (2. hamabostaldia eta ekainaren 1.a): 160 langile kontratatu ziren.

1996-ekaina-3: Nafarroako Gobernuaren Erabakia, proiektuaren bilakaeraren jakitun dagoela adierazi zuen eta NAFINCO enpresari txosten horretan ezarri ziren neurrien berri eman zion.

1996-ekaina-28: COMEPOR,SAL enpresari COMEPOR,SARi emandako onurak subrogatu zitzaizkion.

1996-iraila-11: Txosten Ekonomiko –Finanziareroa, 1996ko maiatzaren 13ra eguneratua.

1996-iraila-12: NAFINCOK, 1996-6-3ko Erabakian ezarri zena betez, gehienez 750 milioi pezetako mailegua egin zion 'COMEPOR, SAL' enpresari.

1996-iraila-19: 'COMEPOR,SAL' enpresaren kapital zabalkuntza, enplegugabeziaren kapitalizazioagatik (413,5 milioi pezeta). Hasierako kapitla 40 milioi pezetakoa zen.

1996-azaroa: 244 langiledun plantila.

1996-abendua-10: Fondo galdurako dirulaguntza ordaindu zen, 570 milioikoa, inbertsioen proiektuagatik.

1997-urtarrila-13: 1994ko uztailaren 26ko Erabakiaren aldarazpena, aurrerakina 2.004 (50 MM) eta 2.005 (150 MM) urteetan itzultzeko eta ez 1.996 eta 1997an.

2. ERANSKINA. IRUÑEKO UDALAK AURKEZTU ZITUEN ALEGAZIOAK.

Gaia: Porcelanas del Norte, SAL, Manufacturas de Navarra, SAL eta Comercial Europea de Porcelanas, SAL enpresei eman zaizkien laguntza publikoen fiskalizazioari buruzko Kontuen Ganbararen behin-behineko txostenari egin zaizkion alegazioak.

Arestian aipatu den txosten horretara xedea diren alegazio horiek sartzearen arrazoia izenburuan aipatu den behin-behineko txostenaren azterketa da, baina hirigintzako plangintzari eta Iruñeako Antolamenduaren Plan Orokorrean Mendebaldeko Plan Partzialaren "H" jarduketa unitatean egin beharko den aldarazpenak ekarriko duen ondare galera edo irabaztearen zenbatekoetari dagokionean baino ez.

Lehenengoa

Iruñeako Udal txit gorenak Mendebaldeko Plan Partzialaren "H" jarduketa unitatean HAPOaren aldarazpena hasieran onetsi aurretik, hau da, 1995eko maiatzaren 18a baino lehenago, arestian aipatu den aldarazpenari buruzko espedientearen zenbait txosten zegoen. Txosten horietatik batzuk udalarenak ziren, adibidez 95.04.20koa eta 95.05.09koa, eta ez ziren egin nahi zen aldarazpenaren aldekoak (espedientearen 4 eta 5. folioak).

Beste txosten batzuk, kasu honetan aldekoak, Nafarroako Gobernuaren sailtakoak ziren; zehatzago eta hurrenez hurren hauek ziren horien datak eta izenpetzaileak: 95.04.24koa, Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzako Zuzendariarenak eta 95.05.2koa, Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzako Saileko zerbitzu teknikoarena.

Azkeneko bi txosten horiek izan ziren Udal Korporazioak planaren aldarazpenaren dokumentua hasieran onesteko oinarritzat hartu zituenak eta horrela eraso zen Hirigintzako Zerbitzuetako Batzordearen urte horretako maiatzaren 3ko aktan (espedientearen 6. 9 eta 11. folioak).

Geroagoko udalaren txostenak aipatu diren txosten horietan Nafarroako Gobernuak ezarritako beharkizunak betetzeko baino ez dira.

Horren guztiaren ondorioz:

14. orrialdeko 3. lerrokadako iter azaltzailean azaltzen dena aldarazi behar da adierazi den era horretan, baita ondorioen e) ataleko 5. idazatia ere, hau da, plan orokorraren aldarazpenen dokumentuaren hasierako eta behin betiko onespenean udal zerbitzu teknikoaren aldeko txostenik gabe

egin zirela, baina Nafarroako Gobernuaren sailen aldeko txostenekin.

Bigarrena

"Iruñeako Antolamenduaren Plan Orokorrean Mendebaldeko Plan Partzialaren "H" jarduketa unitatean egin beharko den aldarazpenak ekarriko duen ondare galera edo irabaztearen zenbatekoetaren eskabideari dagokionean, erantzuna txosten teknikoaren bidez gauzatu zen; testu horretan, era xehekatuan plangintzaren aldarazpena egin aurretik eta egin eta gero azaltzen diren hala etxebizitzaren kopurua nola eraiki daitezkeen bolumenak eta azalerak adierazi ziren.

Plangintzak kasu batean eta bestean ematen dituen aukeren arabera zenbatekoketa egin da. Beste era bateko ustezko balorazioak ondoko datu hauetatik abiatuta egin daitezke; izan ere, Ganbarak, 11. orrialdean azaltzen den koadroan, aldarazpena baino lehenagoko eta geroko balorazioa egin du eta beste balorazio batzuk ere biltzen ditu bere txostenaren 9 eta 14. orrialdeetan.

Horren guztiaren ondorioz:

Hasierako txostena aldarazi behar da eta igorri den udal txostenak mugarik (7. orrialdearen e atala), eragozpenik (9. orrialdeko azken idazatia) edo erantzun ez-egokirik (15. orrialdeko azken atala) jartzen duela esaten duten erreferentzia guztiak saihestu.

Hirugarrena

Txostenaren 9. orrialdeko koadroari dagokionean, adierazi behar da Mendebaldeko Plan Partzialaren ezaugarrien fitxetan aurreikusi diren merkataritzako aldeak, aurreikusi diren eraikinen beheko aldeetakoak alegia, 3.430 m² direla eta ez koadro horretan azaltzen diren 2.100 m²-ak. Halaber, Mendebaldeko P.P.ren "H" jarduketa unitatearen HAPOaren aldarazpenari dagokion koadroan bildu den merkataritzako aldearen azalera ez da 14.000 m²-koa, merkataritzako hori 7.000 m²-koa delako eta beste 600 m² atariak, arrapalak,... dira eta 963 m² sestrako eraikinen beheko solairua – 6m. Zenbaki horiek Ganbarak egin zuen agindeiaren erantzuna izan zen eta bigarren alegazioan ere aipatu den txostenean ere eraso ziren.

Hori 10, 11, 12 eta 13. orrialdeetako ezaugarrien fitxen kasuan ere aplikatu daitezke, eta areago, 10. orrialdeko fitxaren kasuan Mendebaldeko Plan Partzialaren dokumentuan biltzen ez diren batez-besteko aprobetxamendua eta aprobetxamendu motaren erreferentzia ere egiten baita eta,

12. orrialdeko fitxaren kasuan, Mendebaldeko Plan Partzialaren "H" jarduketa unitatearen uenean uneko aldarazpenean bildu den aprobetxamendu mota ere adierazten du.

Horren guztiaren ondorioz:

Arestian ezarri dena bete eta koadroak eta fitxak aldarazi behar dira, balorazio alorraren ondorio izan daitezkeen beste aldarazpen batzuk gora-behera.

Eta hau Iruñean egin da, 1997ko urriaren 27an

Iruñeako Udal txit gorenaren Plangintza Arloaren zuzendaria: Santiago San Martín Díez de Ulzurrun

3. KONTUEN GANBARAREN ERANTZUNA IRUÑEKO UDALAK AURKEZTU ZITUEN ALEGAZIOEI.

Udalak aurkeztu dituen alegazioei erantzun aurretik adierazi behar dugu erakunde horrek ez duela "aldaketak egiteko zirriborroa" fasean txostenaren edukia eztabaidatzeko eskubidea erabili, nahiz eta Ganbara honek horrela jokatzeko esan.

- 1. alegazioari dagokionean, txostenaren testuan argi dago aipatu den hirigintzako aldarazpenak ez zuela udal teknikarien aurrezko onespenerik, IV. atalean eta 2.3. eranskinean ezarri den bezala alegia.

Dena dela, 5. ondorioan eta ekarri den informazioa osatzearen ondoretarako, ondoko lerrokada hau gehitu zaio "nahiz eta horri buruzko Nafarroako Gobernuaren aldeko txostenak egon".

- 2. alegazioari dagokionean, Kontuen Ganbarak, 1997ko apirilean, Udalarari "hirigintzako aldarazpenak Iruñeko Udalarentzat sortuko lituzkeen ondare galeren nabarmenak" zenbatespena egiteko eskatu zion Udalarari (Hirigintzako Gerentziaren beraren txostenaren arabera).

1997ko ekainean Udalak idazki bat igorri zion Ganbarari eta, horretan, ondoko hau baino ez zen esaten:

- Ponsal enpresak atzematen duen lurzatiaren aurrekariaren laburpena.

- Mendebaldeko Plan Partzialean ezarri diren aprobetxamenduen koadroen laburpena.

- HAPOaren H jarduketa unitateko uenean uneko aldarazpenari buruzko testu araupetzailearen laburpen motza, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ateratakoa.

Beraz, ez da aipatu ere egiten aldarazpenak eragingo lukeen "ondare galeren" zenbatespenik, eta horixe zen Ganbararen berariazko eskabide edo eskaera Udalaren Hirigintzako Gerentziaren txosten horretan aipatu zena argitzearen edo, hala balitz, zenbatzearen ondoretarako.

*3. alegazioari dagokionean, ondoko hauek esango genituzke:

a) Lehen lerrokada. Honi dagokionean, eta b) letran esan dena izan ezik, Ganbara honek eskuara dituen datuetan erasota dauden datuak transkribatu baino ez ditu egin.

Horrela, bada, merkataritzako 2.100 m²-ko kopuru hori 1996ko ekaineko Nafarroako Gobernuaren txosten batean azaltzen da.

Aldarazpena egin ondoren eskuratuko diren merkataritzako metroei dagokionean, transkripziozko okerra dela antzeman da, benetako zenbakia 8.563 m² baita eta zirriborroa ez zenez Udala eta Ganbararen artean eztabaidatu ez zen fase horretan zuzentzeko betarik izan.

b) Bigarren lerrokada. 2.3. eranskinean berariaz azaldu den moduan, erreferentzia horiek Ganbara honek egin dituen zenbatespenak edo kalkuluak dira, zertarako-eta aldarazpena baino lehenagoko eta geroko informazioa bateratzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 28an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--